

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

813

EZ MALEFIZIORIK

korrika, Egunero!





ADI GEUKO HARPIDEDUN, ARGIA ALDIZKARIKO KANPAINARI!!!

GEU ETA ARGIA ALDIZKARIEN arteko elkarlanari esker, Geu aldizkariako harpidedunek **ARGIAREN POSTALA** jaso duzue hile honetako aldizkariarekin batera, eta honen bitartez **ARGIAren 3 ale doan jasotzeko aukera** ematen zaizue.

Aukera polita ARGIA astekaria ezagutu eta dastatzten hasteko: politika, ekonomia, euskara, gizartea, kultura, astia, iritziak... **astez aste ARGIArekin.**

ARGIA astekaria ezagutzeko kanpaina

laz hasitako bideari jarraiki, **ARGIA** astekariak eta **GEU** aldizkariak elkarlan hitzarmen bat sinatu dugu, **elkarren arteko harremanak sendotzeko eta euskarazko prentsaren esparruan bakoitzak jokatzeko duen papera indartzeko.**

Hori dela eta, ARGIA astekariak, berau ezagutzera emateko Euskal Herriko hainbat erakunde eta komunikabiderekin batera aurrera daraman kanpainaren barruan, **ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen dizuegu GEUren irakurle guztioi.**

Kanpaina hau, **martxoaren hasieran** burutu nahi baldin bagenuen ere, **"Egunkaria"ren itxieraren eta euskal prentsak jasan duen erasoaren ondorioz atzeratu behar izan dugu.** Baina eraso guztien gainetik aurrera egiteko erabaki irmoa dugunez, inoiz baino konbentzimendu eta ilusio handiagoz heltzen diogu elkarlan honi.

ARGIAren 3 ale horiek jaso nahi baldin badituzu beraz, honako hau egin behar duzu: ale honekin batera jaso duzun **postala bete eta bidali** (ez du seilurik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.

Euskal prentsak bizi duen une zail honetan, denok eskain genezakeen laguntzarik onena, hain zuzen ere, hauxe da: euskarazko egunkaria eta euskal prentsa erosi eta irakurtzea. **Animo!**



behar duzun informazioa
astero zure etxean

BETE TXARTEL HAU ETA JASO 3 ALE DOAN

euskaldunon Egunkaria aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egunkaria aurrera, betiko, Egunero!

Egin zaitez harpidedun

DIRULAGUNTZAK: 3035 0092 56 0920055559

deitu **943 30 35 55 / 943 30 35 54**
635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.egunero.info/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Egunero



XABIER MONTOIA

ahorik aho:

GARI

8-9.
orr.



10-11.
orr.



12-13.
orr.

behatokia&zabalgana

gaika:



16-17.
orr.

AUTISMOA&ALDARRIKAPENA



18-19.
orr.

KORRIKA 13

oihana zabaleta
&saioa aginako,
BASETXEko biztanleak



20-21.
orr.

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egin, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

- Zuzendaria:** estibx breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estibx breñas eta david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune velez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz/ kolaboratzaileak ale honetan: baxi
- Bestelako irudiak-bilaketa:** e.b.z.
Testuen orrazketa-zuzenketa- osaketak: e.b.z.
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, abarrots, josune bereziartu, karlos garcia, joxean sagastizabal, angel ibisate lozares, argazki elkarte, gamarra ostalaritza eskola, ania ibisate, oskar ugarte eta luma aldizkaria
- Publizitatea eta Banaketa:** edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



GAINERA...

• **Han-hemenka** (4-7. orr.):

Iritzian, JOSUNE BEREZIARTU, eskalatzailea / LUIS KARLOS GARCIA, Euskaldunon Egunkaria. **kaleak** dio: korrika. **araba bixotzian**. izenak. **ikusi**: "ostegunak eguzkitan"

• **Euskaltasunean lagun** (15. orr.): rebeka mtz. de compaño

• **KulturAisialdiari so** (22-35. orr.):

AGENDA (22-23). IDAZLEEN GURPILA (V)-JOXEAN SAGASTIZABAL: "kaliforniako mahaspasak" (24).

EMAIZE: "fantasiak" (25). HISTORIA ZERTZELADAK-

ANGEL IBISATE LOZARES: Zurbaoko euskaldunak

XVIII. mendean (26-27). ARTE TXOKOA-BINGEN

MENDIZABAL (28-29). **naturaren isladak** (29).

bidaiak: Kuba II (30). **sukaldaritza** (31). **denbora-**

pasa (31). **artista berrien txokoa** (32).

geu-ren eskaintza (33) eta **gomendioa** (34).

komikia (35). **korrika kulturala**. **elkartasun**

eguna (36).

Azala ...



Korrika 13. Maule-Iruñea. Apirilaren 4tik 13ra. Gasteizen, apirilaren 10ean, arratsaldeko 7.00etan. Leloa, "aek-rekin herri bat geroa lantzen". Eta Geu-ren mezua: **Korrika egunero egin behar da, euskararen alde egunero egin behar da, Egunero denon artean bultzatu beharra dago...**

egunkariaren irudia: iñigo sarasola



luis karlos garcia

EUSKALDUNON EGUNKARIA-KO LANGILEA

ARABAN MILA BAIETZ!

EGUNKARIAren kontrako erasoari erantzuteko moduak anitzak izaten ari dira Euskal Herri osoan. Lurralde osora eta gizarte zabalera iristeko asmoz, 1990. urtean euskarazko egunkaria sortzeko kanpainan egin zen bezala, herrietan batzordeak sortzeko prozesua jarri da abian oraingoan ere, eta, lerroon bitartez, taldeotan parte hartzeko dei zuzena egiten diegu arabar guztiei. Zuen zain gara.

EGUNKARIAren oinarrietan zehazten den bezala, proiektu independente, zabal eta baterakoia izango da egitasmo berria. Hasierako oinarriak, gaur egun, inoiz baino indar handiagokoak dira eta horiei jarraiki lan egingo dugula ziurtatzen dizugu. Alderdi eta sindikatuek babes eta laguntza osoa adierazi digute, eta, lanean aritzeko garai honetan, horri bide emateko aukeretako bat herriz herriko lana da.

Herri edo auzo bakoitzean sortu da batzordea, baina Euskal Herriko osotasun baten barruan kokaturik. Taldeok ondorengo funtzio nagusiak izango dituzte: informazioa herrietan zabaltzea, mobilizazioak nahiz behar diren ekimenak (ludikoak, kulturalak eta abar) sustatzea; eta harpidetzak.

EGUNKARIAren egitasmo berriak aurrera egin dezan, benetan indartsua izan dadin, erabakigarria da harpidetza kopuru polita lortzea: Araban mila lortzeko erronka hartu dugu jomugatzat. Irakurleak baitira (ez beste ezer) proiektu honek izango duen oinarri sendoenetakoa eta hori harpidetzen bidez lotzea aurrera egiteko euskarri garrantzitsua da. Hartara, norbanako, elkarte eta eragileen artean

harpidetzak egiteko izen abizenak eta telefonoak lortzeko ekimen oro baliagarri izango da. Mesedez, irakurle, errazago egiguzu bide hori (harpidetzen berri norberaren herri batzordeari eman behar dio edo honoko zenbaki hauetara deituz: 943 303 555 edo 943 303 554).

Konpromisoa

Harpidetza kanpainak du lehentasun osoa. Oraitxe baitugu euskaldunok euskararekin konpromisoak hartzeko momentua. Gizarteak euskaraz argitaratutako egunkari bat behar eta nahi duela erakutsi du itxiera gertatu zenez geroztik. EGUNKARIAk proiektu tinkoa behar du orain. Hamahiru urte eman ditugu merkatuan, eta, lan hau guztia alperrik ez galtzeko, luzera begiratu beharra daukagu. Bidaide behar zaitugu, irakurle maitea, pasarte berri eta xarmangarri hau elkarrekin egin dezagun.

Harpidetza kanpainak du lehentasun osoa. Alabaina, bono laguntzak ere aurreikusi ditugu. Izan ere, herritar askok etorkizuneko proiektuetarako dirua jarri nahi dutela eta, diru hori bonoen bidez txukun jasotzea izango da batzordeen beste funtzio bat; bonoak 50 eta 300 eurokoak izango dira. Ziur gaude zuetako bakoitzak batzuk saltzeko abagunea izango duzuela.

Laguntzeko tresnak mahai gainean dira. Proiektu berria sendo jaioko dela ziur gaude. Eta baita ere aukera paregabe hau aprobetxatzen jakingo dugula. Eskerrik asko!



josune bereziartu

ESKALATZAILEA

AUPA NESKA KIROLARIAK!

(Geri-k itzulitako testua)

Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neskek kirola praktikatzeari uzteko arrazoiak jasotzen dituen ikerketa bat jaso berri dut. Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako txostena emakume antropologo eta psikologo talde batek egin du. Aldundiak, Kirola, Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuek, EHUK, eta Filosofia, Zientziak eta Hezkuntza Fakultateko antropologia sailak kirola egiteari uzteko arrazoiak aztertu dituzte, Gipuzkoan zein Europa mailan; horretarako, neskatoen beraien iritzia eta haur kiroleko koordinatzaileen zein gurasoen erantzunak bildu dituzte. Ikerketaren sustatzaileek, gainera, ez dituzte soilik arrazoiak aztertu, ausardiaz haratago jo dute, eta arazoari aurre egiteko irtenbideak proposatu dituzte.

Ikerketa sakonki irakurri ondotik, eta emakumea naizen aldetik, elitezko kirolari baten esperientziatik eta Emakumea eta Kirola Fundaziorako egin dudana lanetik abiatuta, kirola egiten ez jarraitzeko arrazoi asko ezagutzen ditut. Horieta batzuk, gure jarrera baldintzatzen duten eta errotuta dauden honako topikoak dira: "Kirola mutilen kontua da"; "Neskek baldarrak dira"; "Kirol porrota gaitasun ezagatik sortzen da, hortaz, zertarako ahalegindu kirol jardueran?"; "Neska batek egin badu, nola ez naiz ni (mutila) saiatuko, arrakasta ziurtatuta badut"; "Nire mutil-lagunarekin batera egoteko aritzen naiz honetan" edota "Ea noiz jokatzan duzun zentzuz eta familia bat eratzen duzun, kirolak ez baitizu jana ematen eta ez zaitu zainduko zahartzaroan" (gurasoak).

Nire ikuspuntutik eta bizi garen gizarte lehiakorra eta alderakoa kontuan hartuta, badiurdi ekidinezina dela kirola lehiakortasun eta garaipenarekin lotzea, non ohorezko kaxoiak baino ez duen balio. Poztasuna eragiten dizkiguten bestelako baloreek, dibertsioa, ahalegina eta ausardia, kasu, gutxietsiak izango dira eta bigarren maila batera eramana, azken emaitzarekin ez badugu hedabideen eta herriaren onspena erdiesten. Hala ere, aitortu behar dut aurrera jarraitzeko animatuko gaituen merezitako onarpen bat ez dela txarra,

kirol jardueraren azken helburua hori ez dela argi badugu, behinik behin.

Halaber, uste dut lortzen ditugun etekin ekonomikoen arabera kirol berberen artean banaketa itzela egiten dugula. Alegia, tenisera jokatzeko errespetatua eta babestua dago; arrazoiak, haxe: DIRU ASKO IRABAZ DAITEKEELAKO. Emakumezkoen saskibaloia ez da interesgarria. Eragin ekonomiko eta mediatiko-sozialik ez.

Uztearen arrazoiak:

Aitzakia ugari erabiltzen dira, baina ez ditut guztiak zerrendatu nahi, nahiago dut nire esperientziatik hobeikien ezagutzen ditudanak azpimarratzea. Arreta deitzen dit "denbora falta" eta "etorkizun profesional bati begira kirolak etekin eskasak" ematen dituela esateak. Hortik ondoriozta dezaket, 12-14 urte bitarteko adin tartean gaztetxoak beren bizitzaren zentzuaz ohartzen direla eta beren etorkizunaren bidea egiten hasten direla, familiari lehentasuna emanez, betiere koadrilan oinarritutako bizitza sozialaren barruan, bai eta egonkortasun emozionala eta ekonomikoa eskaintzen dien iturri profesional batean ere.

Hobekuntza eta partehartzerako proposamen orokorrak:

Atal honetan, aurrekoan egin moduan, ez ditut banan-banan zerrendatuko bildutako proposamen guztiak, interesgarriagoak eta logikoagoak iruditzen zaizkidanak baino ez ditut aipatuko: "kirolaren baloreak eraldatzea"; "Kirol federatua dibertimenduarekin, lehiakortasun ezarekin eta eskolako betebeharekin lotzea". Azkenik, "komunikabideen" irtenbidea aipatu nahiko nuke. Ikerketaren arabera, sentsibilizazio eta gizarte kontzientziaziorako kanpainen beharrak antzematen dituzte. Emakume kirolarien irudiak bultzatuz, telebistako publizitatearen bitartez, kartel eta egunkarietako iragarkien eta abarren bitartez, gizartea emakume kirolari bat zerbait "NORMALTZAT" hartzera ohitu ahal izateko.



BADATOR KORRIKA!

Korrika-ren 13. txanpan murgiltzeko atarian gaude. Euskarak orain inoiz baino gehiago behar gaitu. Nahiz eta 13 zenbakiak beti konnotazio berezia izan ohi duen, aurten antolatzaileek aukera paregabea topatu dute aspaldiko euskararen bultzatzaile finei merezitako omenaldia egiteko, "Ez dok amairu" mugimendua hain zuzen. Maulen hasi eta Iruñean amaituko den euskararen aldeko ibilbideak gure hiriburua ere zeharkatuko du, jakina! Parte hartzeko asmorik?

1.- Korrikarik egin al duzu noizbait
Korrikaren batean? Zergatik?



OIER OREITIA
Elektronikoa

1. Txikitan eskolarekin egin izan dugu Korrika, baina dagoeneko ohitura galdu dut.
2. Aurten ere ez dut uste parte hartuko dudarik.

2.- Eta aurten, asmorik al duzu?



SERGIO LADO
Langabetua

1. Ez. Ohitura falta izango da, ez dut planteatu. Euskararen aldeko beste ekintza askotan parte hartu izan dut, baina Korrikan sekula.
2. Ez dut uste. Aurten bestelako konpromisoak dauzkagu euskararekin.



UNAI PEREZ
Ikaslea

1. Ez dut parte hartzerik izaten, beti topatzen baitut beste zereginen bat.
2. Aurten ere gaitza ikusten dut.



ZURIÑE MADINABEITIA
Langabetua

1. Txikitan bai, baina aspaldian ez dudala korrikarik egiten. Beti izaten dira hainbeste konpromiso aldezturik...
2. Agian aurten bai, taldetxo bat antolatuko dugu elkarrekin joateko.

Izenak

EGUNKARIA AURRERA!

GERRARIK EZ!



OSTEGUNAK EGUZKITAN | Los Jueves al sol

Egunkariaren aldeko ekimen irudimentsuak ari dira Gasteizen antolatzen. 'Ostegunak Eguzkitan' deritzan hau Gasteizen ari da gauzatzen, Gasteizko Egunkaria-ko langileek antolatua, ostegunik ostegun ITXIERAz geroztik.

Lehen jardunaldiak **komunikabideak** bildu zituen; bigarrenak, **artistak**, Bernardo Atxaga eta Kirmen Uriberen irakurraldiez; hirugarrenak, **lanuzteari bai** esan zioten askotariko lagunak; laugarrenak, **euskaltegietako irakasle eta ikasleak**, zeinek eskolak kalera atera baitzituzten; bosgarrenak **amak** bildu zituen, amei zapi bana emanez, Argentinako Maiatza Plazako Amen kontzentrazio historikoak gogora ekarriz... Ostegun guztien ezaugarriak: lagun ugari eta berotasuna.

Bidegabekeria itzel honen aurkako salaketa astero gure hiriko karriketan, Euskal Herriko karriketan, egon dadin Eguneroko zenki oihuka dezagun bai euskarari, askatasunari eta eskubideei.

EUSKAL HERRIAK EGUNKARIA-RI BAI ESAN DIOLAKO ETA ALDARRIKAPEN HORI EGUNERO MURRUETATIK AT ATERA BEHARRA DAGOELAKO.

Araba bixotzian



GARI: "Presarik eta handinahirik ez

Ia urtebete eman du Iñaki Garitaonaindia, *Gari*-k Peruko oihanean, eta handik bueltan musikari heldu dio atzera ere, baina oraingoan lehen baino askoz lasaiago; berak dioen moduan "inolako presarik" ez baitu. Gasteizen eratu berri duen taldearekin entseiatu ondoren geratu gara berarekin, eta eguna iluntzearekin batera egin diogu elkarrizketa.



"Harritzen nau halako erantzuna jaso izanak. Ez nuen espero"

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz

- Ia urtebete Peruko oihanean eman duzu. Zerk bultzatu zintuen hara joatera?

Zure burua amildegiaren ertzean sentitzen duzunean onena da edo zuzenean zutara bota, edo beste gauza batean pentsatzea. Halako egoera zen hura, eta herritik alde egitea erabaki nuen. Eta Perura joatea erabaki nuen, osaba bertan egonda zelako misiolari bezala.

- Nolako esperientzia izan da? Gogorra?

Nahiz eta oso gogorra izan (niretzat hura infernuaren behe solairua ezagutzea bezalakoa izan zen), beti ateratzen duzu halako emaitza baikorren bat, eta alde horretatik nik uste dut beste pauso batekin etorri naizela. Nire pausoa gaur egun kubatarra edo kanarioa da, eta lehen pausoa, ordea, galdua zegoen.

- Buelatu, eta berriro heldu diozu musikari. Gogotsu?

Bai, oso gustura, ez bainuen pentsatzen berriro ere musika giroan sartzea, baina egoera hala izan da, eta kristoren zortea izan dut, nahi gabe edo gehiegi pentsatu gabe azkenean lortu baitut Gasteizen talde bat sortzea. Boskote bat gara gaur egun: Hasier Oleaga baterian, Josu Izagirre baxuan, Juanma Gereñu gitarran eta Kepa Martinez de Albeniz teklatueta. Ez nituen ezagutzen, eta bat-batean halako talde bat sortzea eta jada sei bat kontzertu eskaini izana..., ez nuen espero halako erantzunik. Ez nuen espero iritsi eta hain laster talde bat sortzea, non eta Gasteizen, sekula ez baitut talderik sortu Gasteizen. Gainera, horrekin lortu dut pertsonalki hiri honekin beste harreman bat izatea, askoz ere positiboagoa.

- Taldea sortzeko asmoarekin etorri zinen Perutik?

Ez, gainera ez bakarrik talde bat sortzeko asmorik ez nuela, musikan segitzeko ideiarik ere ez nuen. Beraz, gauza puntualak izan ziren: bat-batean iritsi eta Gara-ren diskoa apirilean kaleratu beharrean, irailean atera zuten. Orduan, berriro hastea pentsatu nuen, eta dena oso ongi joan da, harrituta nago, ez zait sekula horrelakorik gertatu.

- Musika munduan irautea gero eta zailagoa da, hala ere.

Ez da erraza, eta gaur egun dagoen egoerarekin oso zaila da. Gauzak dira azaltzen diren moduan. Halere, gauzak dauden moduan egonda ere, nik argi dut ez dudala presarik, ez

daukat, gustura sentitzea baino ez"

baitaukat handinahirik, gustura sentitzea baino ez. Eta ez bakarrik musika arloan, baita nire bizitza pertsonalean ere.

- Grabatzear zauden diskoa elebitan izango da, ezta?

Bai, gustatuko litzaidake euskaraz eta gazteleraz egitea, kanta berriak bi hizkuntzetan daudelako. Gainera, orain ez dut disko bat euskaraz edo gazteleraz bakarrik egin nahi. Hori bai, gero industriak esango dit.

- Jadanik kontzertu batzuk eskaini dituzu. Nolakoa izan da jendearen harrera?

Oso positiboa. Harritzen nau halako erantzuna jaso izanak. Ez nuen espero. Izan ere, gaztelerazko disko bat prestatu nuen baina ez zen bideratu. Gara-ren eskutik lortu nuen disko bat kaleratzea, eta bertan gaztelerazko lau kanta sartu nituen, eta jendearen harrera ere izugarri ona izan zen. Egia esan ez dut sekula kexarik izan nire publikoaren inguruan, beti "chapeau" izan baita. Eta hori zorte bat da.

- Egin dituzun kantei zer kontatzen dute?

Betikoa. Azken finean, amodioa, barneko gauzak, norberaren esperientzia... (eskuarekin bihotzean kolpetxoak ematen ditu).

- Egoera politikoak islarik ba al du abestietan?

Ez, politika politikarientzat da. Ni musikaria naiz, eta ez zait gustatzen gai horiek jorratzea. Abesterakoan ez naiz identifikatzen gai horrekin. Akaso lagunekin hitz egiteko eta eztabaida sortzeko, bai. Baina abesteko hitzak barneratu eta sentimenduak azaltzeko beharra daukat. Eta politika ez da hori.

- Euskal Herrira bueltatzeak eta musika munduari berriro heltzeak bide eman dizu atzera begiratu eta zure hastapenak gogoratzeko?


Ez, beti noa aurrera.

- Nola gogoratzen dituzu garai haiek?

Ez ditut gogoratzen.

- Eta bakarka egindako ibilbidea?

Hasiera oso zaila izan zen. Nik, egia esan, ez dut ulertzen oniegi zer dela eta oihaletik bueltan eta ahalegin handirik egin gabe gauzak hain samur bideratzen ari diren. Akaso izango da jasotzen ari naizela lehen egindako lanaren emaitza? Ez dakit!



XABIER MONTIOIA: "Rocka esklerosiak jota dago"

edurne begiristain

argazkiak: baxi

- Nola definituko zenuke zure laugarren lana?

Nik, hasteko, ez nuke definituko... (kar, kar, kar). Definitu behar izatekotan larri ibiliko nintzateke, norberak bere buruaz hitz egitea zaila izaten baita. Niretzat disko hau aurrekoaren bidetik abiatzen da, baina askozaz haratago heltzeko asmoarekin. Hamar kantu biltzen dituen diskoa da, hamar kantu pop nolabait esateko, pop oso zentzu zabalean. Musika mota bat, beste musika asko bere baitan biltzen dituen musika, horixe da niretzako popa: gaur egungo hirietako herri musika. Eta

horixe da nire lana.

- Aurreko diskoaren ildoari jarraitzen diozula esan duzu. Zein zentzutan?


Hasierako lana nik egin nezakeenaren bilduma izan zen. Bigarrena, ordea, oso disko rockeroa izan zen.

"espero dut noizbait punkiaren iraultza bat etortzea, eta rocka hankaz gora jartzea, behingoz"


Hirugarrenean, saiatu nintzen tarte handiagoak uzten, dena ez betetzen, eta gitarretan baino, baxuan eta baterian gehiago oinarritutako disko bat egiten. Eta lan honetan hortik jarraitu dut. Saiatu naiz kanta bakoitzak arnas hartzeko tarte izatea, hutsuneak uztea...

- Gusturago ibiltzen zara, beraz, musika estilo hori eginez?

Ni rocketik nator, punkitik, hain zuzen. Eta nik musika hori beti izango dut gustuko. Baina gaur egungo eta azken urteotako rocka ikusita, iruditzen



Idazle eta musikaria dugu Xabier Montioia gasteiztarra. Bi jarduera horiek beren emaitza eman dute azken hilabeteetan: *Ni ez naiz Xabier Montioia* diskoa eta *Denboraren izerdia* eleberria. Bere liburuez hitz egitea gehiegi gustatzen ez zaionez, azken diskoaren nondik norakoez mintzatu zaigu elkarrizketa honetan.



"identitatearen kontuaren inguruko galderak, euskaldunontzat betidanik gaurkotasun handia izan duten kontuak"

dut sekula *nire* diskoa den sentsaziorik izan, *gure* diskoa dela baizik.

- Diskoaren azalean Iñigo Telletxea baxujolea agertzen da. Zergatik?

Diskoa bukatu eta gero, Beran nengoen larunbat gau batean, eta diskoaren inguruko izenburuaz mintzatzen hasi ginen. Iñigok esan zidan nik agertu behar nuela azalean, eta nik ezetz, berak agertu behar zuela. Orduan hortik tiraka hasi ginen, eta "Ni ez naiz Xabier Montoia"-ra heldu ginen. Guretzat txorakeria bat izan zen, gau bateko txorakeria. Baina gero hitzak garbira pasatzerakoan ohartu nintzen "Ni ez naiz Xabier Montoia" horrek biltzen duela nahiko ongi kantuek adierazten zutena, alegia, nortasunaren arazoa: zer garen, ote garen uste duguna, edo ez ote garen besteek ikusten gaituzten moduan, eta abar... Identitatearen kontuaren inguruko galderak, euskaldunontzat betidanik gaurkotasun handia izan duten kontuak.

- Diskoaren emaitzarekin gustura geratu zara?

Oso gustura. Aurrekoetan baino dezente gehiago. Gure kasa egin dugu, gure etxean, oso eroso eta lasai. Inolako presiorik gabe.

- Jendeak nor ezagutzen du gehiago, Xabier Montoia idazlea ala musikaria?

Liburuengatik ezagutzen naute gehien. Baina, hala ere, ezagutza hori nola kuantifikatzen da? Nik dakidana da saltzen dudala hiruzpalau bider gehiago liburuekin diskoekin baino; hori datu objektibo bat da. Behintzat jendearen aldetik harrera hobea dute nire liburuek nire diskoek baino. Beharbada kritikari dagokionez, diskoetan oso kritika onak jasotzen ditut, baina salmentetan izugarri txarrak. Baina kontu honek gero eta gutxiago kezkatzen nau, egia esan. Ni beti saiatuko naiz ahalik eta kanta hoberenak egiten, eta jotzen, eta diskoak egiten jarraituko dut. Hori da nire helburua eta kezka, eta gainerakoa ez dago nire esku.

zait rocka esklerosiak jota dagoela. Alegia, errepikatzen duela bere burua behin eta berriro. Eta horregatik, ni nekatu egin nintzen, eta pentsatu nuen badirela beste musika batzuk biziagoak, momentuz behintzat, eta hortik jo nuen. Batez ere ikusi nuelako rock and rollak bide guztiak oso ibiliak dituela, gaixotuta dagoela... Espero dut noizbait punkiaren iraultza bat etortzea, eta rocka hankaz gora jartzea, behingoz.

Baina hori heltzen den bitartean...

- Azken lanak zure izena darama, baina ohiko taldearekin grabatu duzu. Talde-lana ere antzematen da, beraz.

Bai, noski. Egia esan ni beti taldeetan ibili naiz. Orain diskoak nire izenarekin ateratzen baditut, egoerak hala behartuta izan delako da. Kantuak nik egiten ditut, baina hortik aurrera talde-lana da. Niretzat talde bat gara, naiz eta Xabier Montoia deitu. Nik ez

VIVIENDAS 2.674 ETXEBIZITZA

ZABALGANA

URBANIZACIÓN HIRITARTZEA

BALGORZA esconsu GEDI XXI

Junta de Compensación de la Unidad de Ejecución Única de los Sectores 2 y 3

Gasteizko Udalak ez ditu gasteiztar, arabarron arbasoek erabili Borinbizkarra, Salisasi, Andresolo, Elexalde, Mariturri edo Perretxin bezalako izenak Zabalganako kaleetarako hautatu nahi izan

leire lpz. de aberasturi
argazkiak: edorta sanz

Jatorrizko izenak errespetatzea hizkuntza eskubideen gutxieneko baldintzatatzat jotzen dute nazioarteko testu legalek. Hau da, herritarrek beren hizkuntza propioan hitz egiteko aukerarik ez dutenean ere, toponimoak kontsolamendu triste gisa uzten dira. Hala ere, egun Euskal Herrian toponimoak erdaratzeko dinamika ez ote den sistematizatzen ari susmatzen du euskararen Behatokiak.

Toponimoei errespetua, oinarrizko eskubidea. behatokia&zabalganako adibidea

Toponimoak aldatuz hizkuntzari egiten zaizkion erasoak dira Behatokiak jasotzen dituen salaketen parte bat. Iaz 1.026 espediente zabaldu zituen herritarrek egindako 763 kexak bideratuz. Horietatik %7 baino gehiago arabarrek igorri zizkieten. Arabatik iritsitako gehienak gasteiztarrek egin zituzten, baina asko Gorbeia inguruan eta Errioxan sortu ziren.

Behatokiak kexak, iradokizunak eta zorionak jasotzen dituenean (902 19 43 32 telefonoan edo www.behatokia.org web-orrian) horiek sailkatu, aztertu eta

dagokion erakundera bideratzen ditu. Enpresa pribatuei buruzko kexak ere jasotzen ditu, baina ematen diren pausoak beste batzuk dira.

Zaila da esatea arabarrek erakundeak edo enpresa pribatuak zoriontzeko arrazoiak izan dituzten, baina kexen artean toponimoei emandako tratuak pisu handia du. Zabalganako etorkizuneko kaleen izen berriak eta Langraiz Okaren sarreran jarri den erdara hutsezko kartela (Nanclares de la Oca, letra handiz) aztertuko ditu Behatokiak eta, kexa bidezkoa ikusten badu, horren berri

BEIRATE ESTUDIOA

MIKEL DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

SARTU

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA TABERNA

JANTOKI BEGETARIANOAK

SAN FRANCISCO XABIERREKAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldian plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

emango du dagokion erakundean.

Baina toponimoek jasotzen dituzten erasoak ez dira Araban bakarrik ematen. Euskara ofiziala ez den Iparraldean eta erdi ofiziala baino ez den Nafarroan zer gertatzen den sarri salatzen da, baina gainontzeko herrialdeetan ematen ari den dinamika eraso horiek sistematizatzen ari ote diren susmoa zabaldu du Behatokian. Santurtziko agintariek, adibidez, Santurce berreskuratu nahi dute, edo behintzat gaztelerazko izena berriro ere erabiltzen hasi dira kartelen batean. Eta Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkartzak, Enrique Villar jauna buru duen horrek, Bizkaia eta Gipuzkoa beharrean Vizcaya eta Guipuzcoa idazteko eskatu duela azaldu dute Behatokiko arduradunek.

Toponimoen kasua larria izan arren, ez da euskaldunek daukaten buruhauste bakarra eta Gasteiztarren kasuan Udalak egindako azken inkestaren berri ere jaso du Behatokiak. Gutunazalean igorritako gutuna euskara eta gazteleraz zihoan, baina galdeketa bera erdara hutsez. Euskaldunen hizkuntz eskubideak noiz eta nork urratzen dituen jakitea garrantzitsua den arren, kexen bideragarritasunari buruzko zalantza dute Behatokian; inkestaren kasuan, esaterako, horren berri arartekoari eman, Udalari eskaera administratiboa egin eta erantzuna jasotzen denerako galdeketa ahaztuta dagoelako.

Zabalgana: mendetako historia galduta

Avenida de la Ilustración, Avenida de los Derechos Humanos, de las Naciones Unidas Calle de Desmond Tutu, Nelson Mandela, Luther King... Hauek dira Gasteizko Udalak Zabalganako kaleetarako zehaztutako izenak, gasteiztar, arabarron, arbasoek erabili Borinbizkarra, Salisasi, Andresolo, Elexalde, Mariturri edo Perretxin (Ehariko erreka jatorrizko izena; hemendik aurrera Río de Ali omen), esate baterako, hautatu beharrean; jakin dugunez, antzinako izen hauetako hainbat oraindik bertako bizilagunen mintzairan entzun daitezke. Gasteiz azkar eta etengabe hazten ari da eta hiria ondo baino hobeto ezagutzen dutenek ere inoiz entzun ez dituzten kaleen izen berriak azaltzen dira egunez egun. Udal Gobernuak du horiek izendatzeko eskumena eta adibideetan ikusi legez, Zabalganarako izen farfaiitsuak proposatu ditu, bertako toponimikoak baztertuz.

Arazoa baina ez da izenak galdu direla. Izan ere, Euskaltzaindiak "Onomasticon Vasconiae" bildumaren baitan lantzen diharduen 3 aleko lehen liburukia, 'Gasteiz eta 12 herri', argitaratu berri du (Udalarekin egindako hitzarmen bati esker gainera). Lan osoak Gasteizko eta bere 64 herrisketako antzinako toponimoak biltzen ditu, eta berau osatzeko bertako termino toponimikoen 400.000 erregistro (txoko bakoitza izendatzeko Gasteizek eta bere 64 herriskek historian barrena erabilitako izenak) bildu eta aztertu ostean, 12.000 toponimoren errolda dugu emaitza (ibaiak, errekek, bideak, bideskak, lursailak, iturriak, larreak, gurutzeak, kaleak, mugarriak, leizeak, sakanak... izendatzeko ibilitakoak).

Arazoi askorengatik desagertu daiteke toponimo bat, izan ere, liburuan agertzen diren jatorrizko izenak ez dira egun erabiltzen: paper ofizialak betetzen dituztenek erdaratzen dituztelako, urteetan zehar jendeak desberdin idazten dituelako,... Egun argi dago izenak nola idazten diren eta ikerketa lanei esker ezagutu ere ezagutzen dira, baina Udal Gobernuaren gustukoagoak diren beste batzuegatik aldatzen badira, galtzeko arriskuan daude berdin-berdin.

testuaren osaketak: e.b.z.



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale 36€
urtean 30€




HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK:	
IZENA:	
HELBIDEA:	
	P.K:
HERRIA:	LURRALDEA:
TFNOA:	SORTEGUNA:
POSTA E:	
Ordainketa mota:	
☐ Txekea ☐ Kontu korrontea	
Titularra:	
Ipar E.H.	
Ipar E.H.	

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

publizitatea





**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea • Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Adituri onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurria, hurbila eta saiataua.
Horixe duzu gure konpromisoa.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiral arratsaldeak,
larunbatetan eta
igandeetan
IREKITA

Gerentzia
berria

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

**UKONDO
ERREA
DAGO**

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



edurne begiristain

argazkia: edorta sanz

REBEKA MARTINEZ DE COMPAÑON, kazetari euskaldun fina



Kazetari lanak eta Historiako ikasketek tarte gutxi uzten diote atseden hartzeko eta bere zaletasunak praktikatzeko. 25 urte ditu Rebeca Martinez de Compañonek, eta duela urte eta erditik hona Deia egunkarian egiten du behar, lokal sailean, gustura asko, gainera. Aurretik, Udaleko gazte-zerbitzuan lan egin zuen, bai eta ETBn ere, bekadun gisa. Euskara 17 urte zituela ikasi zuen: barnetegi zenbaitetan ibili zen, eta ondoren AEKn 3 urte eman zituen, EGA atera arte. Neska "irekia" dela dio, baina noizbehinka haserrealdiak dituela aitortzen du, "berehala pasatzen zaizkit, ordea"

- Duzun biziorik handiena? Gauzez ateratzea, erretzea eta kafea hartzea.
- Eta bertutea? Oso irekia naizela. Edozein egoeratar aise moldatzen naizela uste dut.
- Zer eskatzen diozu bizitzari? Nahi dudana egin ahal izatea.
- Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Jendea berandu ailegatzeak.
- GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai? Bai, aspalditik naiz aldizkariako harpidedun, duela 8 bat urte. Elkarte entzunez ezagutzen dut.
- Egunkari bat? Orain arte EUSKALDUNON EGUNKARIA. Orain Egunero.
- Telebista saio bat? Telebista gutxi ikusten dut. Albistegiak bai, egunero.

- Filmik gustukoena? "En el nombre del padre".
- Jaki gozoren bat? Marrubiak.
- Fobiarik? Asko: armiarmak, sugeak eta arratoiak.
- Oporrak non eta zertarako? Atzerrian, edozein herrialdek du zeozer ezagutzeko. Zertarako? Ba... deskonektatzeko, jende eta kultura desberdinak ezagutzeko, lekuz aldatzeko....
- Eta nora ez zinateke joango? AEBetara (Ameriketako Estatu Batuak) joateko interes handirik ez dut.
- Liburu bat? Egia esan azken aldi honetan ez dut ezer irakurri, Historia ikasten ari naiz eta ikasgaietakoak baino ez ditut irakurtzen. Literatura gutxi.

- Kolore bat? Beltza.
- Musika gustukoena? Oro har Euskal Herriko musika, La Polla, Barricada...
- Gorputzeko atalik politena? Nirea? Beharrezkoa da esatea? (kar, kar, kar...)
- Zer da Gasteizek duen onena? Txikia dela eta guztiok elkar ezagutzen dugula. Horrek ere bere desabantailak ditu.
- Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Zaila da, baina bai. Azken urteotan gauzak asko aldatu dira.
- Amets bat? Gaur egun gauzak nola dauden ikusita, etxebizitza izatea.
- Amesgaizto bat? Munduan bakarrik geratzea.
- Zer eskatzen du herriak? Abestiak dioen bezala: "Askatasuna!".

AUTISMOA,

ZULO BAT ARABAKO ASISTENTZIAKO SAREAN

leire lpz. de aberasturi
argazkiak: edorta sanz

Herrialdeak dituen gizarte zerbitzuez harro agertu dira sarri Arabako agintariak, bertako mailak ez omen duelako parekorik ez Euskal Herrian ez Estatuan ere. Autismoaren Elkarteak, berriz, sare horrek duen zulo garrantzitsu bat salatzen hasi zen duela bi urte: autista helduek ez dutela lekurik. Elkartek hori salatu eta irtenbide bat eskatzen duten ia 50.000 sinadura bildu ditu.

Jon Kortabarriak, 16 urteko mutil autista baten aita eta Autismoaren Elkarteak kideak, beren eskakizuna eguneroko jardura zentroa dela azaldu du. "Gure lehenengo borroka haurrak eskolaratzea izan zen eta duela bi urte bideratuta utzi genuen gai hori; orain, eskola utzi eta gero leku bat behar dutela aldarrikatzen dugu", dio.

2001eko martxoan bildu ziren lehen aldiz Diputazioaren Ongizate Saileko buru ohi Maria Teresa Sagarnarekin. Ordutik honako bidea bete gabeko konpromisoez osatuta egon dela salatu du Kortabarriak. Diputazioak hasieratik esan zuen zerbait egitekotan Eusko Jaurilaritzarekin izan beharko zuela eta

gastuak erdibana banatuz. Batzar Nagusiek ere hori egiteko eskatu zioten ofizialki.

Tranpa

Baina, konpromisoan Eusko Jaurilaritza tartean sartzea "tranpatzat" hartu du Jonek, horrela batek aurrera egiten ez badu besteak ere ez du ezer egingo, biek prest daudela esan arren.

Iragan urrian, egungo Ongizateko diputatu Agirrezabal jauna Batzar Nagusietan agertu zen Diputazioak arazoari irtenbide bat ematea erabaki zuela esateko. Ondoren, prentsurreko bat antolatu zuen berri ona kazetariei emateko eta, azkenik, bi urte borrokatzen



IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAZ
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAOKAK ETA MERIENDAK

daramaten gurasoekin bildu zen. Moduak ez ziren Autismoaren Elkarteko kideen gustuko izan eta irtenbidearen mamia are

**autismoa kalean
ikusten ez bada ere, fisikoki
nabaritzen ez delako, 150
lagunetatik batek autismoaren
sindromea du**

gutxiago. Proposamena honakoa zen: Maila intelektual arrunta duten autistentzako (% 20 baino ez) zentro bat egitea.

onak: dirua izanez gero kanpoko zentro egokietara eramatea, etxean edukitzea edo psikiatriko batean sartzea.

Martxan jartzekoa omen den zentro horretan ezin sar daitezkeenak zaintzeko baliabideak dituela dio Diputazioak, dagoeneko zabalik dauden asistentzia-egoitzak aipatuz. Elkarateak egoitza asistentzial bat nahi du, baina autisten beharretara egokitua. Hau da, Downen sindromea duen pertsona batek, esaterako,



Jon Kortabarria, Autismoaren Elkarteko kidea

Zein da akatsa? Batetik, "arazo gutxien dituztenentzat dela, lan merkatuan txertatzeko aukera gehien dituztenentzat"; izan ere, maila intelektual normala badaukate, harreman arruntak izateko arazoak dituzte, baina hainbat lan arazorik gabe egin ditzakete. Gainera, "proposatutako zentro horrek psikiatriko kutsua du, gehienez 25 pertsona eta hamar sendagile -neurologo, psikologo, psikiatra, terapeutak,...- egongo dira eta".

"Posible izanda ere, nik ez nuke nire semea hara eramango", dio Jon Kortabarriak bere desadostasuna erakutsiz. Gustuko izan ala ez, Gasteizko 25 autistak irtenbide bat badutela onartu du Jonek, azkenean martxan jartzen badute behintzat. Izan ere, egun seme-alaba autistak dauzkatenek hiru aukera baino ez dituzte, eta ez oso

botoiak lotzen orduak eman baditzaie, autista batentzat hori erabat pentsaezina da. "Aldiz, naturarekin harremana duten aktibitateetan edo artean onak dira".

Araban, diagnostikatu gabe

Arabako autistek duten gabezia are mingarriagoa da Gipuzkoan bertan eredugarria den zerbitzua dutelako, Diputazioak ordainduta gainera. Baina Araban autisten senideek zailtasunak izan dituzte beti. Sinestea zaila den arren, duela hamar-hamabost urte herrialdean autistak ez zegoen. "Egon bazeuden, noski", zuzendu du Jon Kortabarriak, "baina ez zeuden diagnostikatuta". Arabako medikuen artean nagusi zen korronteak autismoa ez dela existitzen zioen, "eta diagnostikoa kanpoko

sendagileek egin behar zuten".

Gauzak aldatu dira eta egun ez da autismoaz hitz egiten, autismoaren sindromeaz baizik. Batez ere gizonezkoiei eragiten dien gaitz honetaz jota daudenek hiru ezaugarri dituzte, edo horietatik baten bat behintzat: "isolamenduan bizi dira; hitz egiteko gai diren arren komunikatzeko arazoak dituzte; eta mundu sinbolikoa desenfokatuta dute".

Haurra urte eta erdi eta bi urte dituen bitartean diagnostikatu egiten da autismoa, eta egun oraindik ere sendagaitza den arren, garaiz konturatu eta baliabide egokiak jarrita aurrerapausoak erdiestea posible da. Baliabideen arazoa ez da txantxa, autismoa kalean ikusten ez bada ere, fisikoki nabaritzen ez delako, 150 lagunetatik batek autismoaren sindromea baitu.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

badator ...korrika &13, APIRI

'aek-rekin herri bat geroa lantzen', egunkariaren aldeko aldarrikapenaz

josune veleaz de mendizabal

argazkiak: edorta sanz eta korrika

Apirilaren 4an Maulen abian jarriko den Korrikari harrera beroa egingo diote gasteiztarrek apirilaren 10ean. Gasteiz goitik behera apainduta, txandala eta zapatilak jantzitako milaka lagun zain dituela, Korrika 13 ostegun arratsaldeko 19.00etan Lasarteko atetik sartu eta 21.30ak aldera Elorriagako atetik irtengo da. Gasteizen, gainontzeko Euskal Herriko tokietan bezalaxe, egun hori berezia da eta kalean giroa antzematen da, perkusioa, kale animazioa, trikitalariak, gaiteroak..., eta gutxi balitz jaia gauez ere Alde Zaharrean luzatzen da. Haurrak, gazteak eta helduak, denek daukate kabida Korrikan. Aek-k antolatu kultura, dibertsio, konpromiso eta euskararen aldeko giza-lurrikada sekulan ez dator bakarrik eta aurten ere eskaintza kulturalako ikuskizun eta ekintza anitz franko prestatu ditu. Aurretik, bitartean eta ondoren euskararen aldeko jaia ziurtatuta dago, badator, heldu da, Korrika 13 hemen da!

“Afari batetik atera zen korrika antolatzeke ideia”, hori da behintzat Amaia Apaolaza Gasteizko Korrika antolakuntzako kideak entzun duena, “lagun talde bat euskarari bultzada sendoa emango zionaz eta Euskal Herri osoa murgilduko zuenaz hitz egiten hasi eta hortik jaio zen Korrika”. Ordutik hogeita sei urte eta hamairu edizio pasa dira dagoeneko. Urtero bezala aurtengo Korrikak, antolatzeke lan mardula eskatu badu ere, berriro ere ilusioa piztu du euskaldunen artean.

Leloaz, mezuaz eta omenduez osatua aurtengo Korrika 13-k hamarkada oso bat ekartzen du gogora, “Euskal Herriak bere kultura eta hizkuntza berreskuratzeko lanean ibilitako garai horiek ditu oinarri, hots, 60. hamarkadaren bukaeran eta 70. hamarkadaren hasieran euskal kulturak jaso zuen berpizkundea eta horretan lagundu zutenak”. Horra hor “Ez dok 13” mugimenduari eskainitako omenaldia, baita abestia ere. Bingen Mendizabalen musika, Igor Elortzaren hitzak, Ruper Ordorika eta Mikel Laboaren ahotsetan, gurea tximeleta bihurtu da. “Kanta lasaia da, bai, eta batzuentzat oso polita bada ere beste batzuek, berriz, korrika egiteko lasaiegia dela diote”, aipatzen du Amaiak, “dena den, aurtengo kantak Korrikak omentzen duen garai horretan kokatzeko balio du”.

PARTE HAR EZAZU KORRIKAN!

Bi urtetan behin ospatzen bada ere euskararen aldeko lana ez da Korrikarekin bukatzen. Amaia Apaolazaren hitzetan, “eguneroko lana gelditzen da, izan ere, euskalgintzako jende asko mugitzen da eta hori ez da Korrika baino gutxiago; egin beharreko gauzak dira, esaterako, AEKren kasuan euskararen alfabetatzen aritzea, beste batzuen kasuan euskarazko aldizkaria kaleratzea eta euskarazko ekitaldiak antolatzea... Normalizazio prozesu horretan gauza asko baitaute egiteko”.

Korrika egitetik hasiz ehundaka gauza egin daitezke Korrikari laguntzeko, “Korrikak epe jakin bat badauka ere -eta arineketaz ari gara-, euskarari bultzada bat emateko ekitaldia izanik, jendearen kontzientzia piztu eta euskararen alde lanean jarraitzeke beharko luke Korrikak”. Korrika kulturalako ekitaldietara joanez, Korrika laguntzailearen pina erosiz, diru aportazioak eginez (3035.0072.02.072.00571 kontu korrantean), Korrikaren webgunea bisitatuz (www.korrika.org), petoa jantzita korrika eginez, herriz herri egingo den Korrikaren aldeko diru bilketan lagunduz, eta hasierako eta bukaerako jaietara joanez dira Korrikan laguntzeko moduetako batzuk.



LAREN 4tik 13ra. MAULE-IRUÑEA

GAUR EGUN, 60KO HAMARKADAREN BUKAERAN ETA ETA 70EKO HASIERAN "EZ DOK AMAIRU" MUGIMENDUAK EGIN BEZALA, KORRIKA-K GAUZA BERA ADIERAZI NAHI DIO GIZARTEARI: EZ DAGO HAMAHIRURIK, EZ DAGO MALEFIZIORIK, PATUA SAHIESTERIK BADAGO, OSO EGOERA ZAILEAN ETA DIKTADURAPEAN EUSKAL KANTAGINTZARI ETA EUSKAL KULTURARI ORO HAR BEREKIZIKO BULTZADA EMATEA LORTU ZUTEN MODUAN, GEUK ERE, ERASO, ZATIKETA JURIDIKO ETA NEURRI MURRIZTAILE GUZTIEN GAINETIK, AUERRERA EGITEKO MODUAN GAUDE LANARI ILUSIOZ EKITEN BADIOGU. BERPIZKUNDE BERRI BATEN ATARIAN JARRI BEHAR DUGU EUSKAL GIZARTEA, GAI GARA-ETA.

ARABAKO IBILBIDEA: 1182 km-tik 1474 km-ra

Apirilak 9: Audio, Luxaondo, Amurrio

Apirilak 10: Goiuri, Izarra, Murgia, Manurga, Gopegi, Foronda, Otatza, Martioda, Langraiz, Argantzun, Zanbrana, (Briñas), Bastida, Samaniego, Leza, Biasteri, Bilar, Kripan, Bernedo, Lagran, Urizaharra, Armentia, Trebiño, Berrostegieta, GASTEIZ, Elorriaga, Oreitia, Dulantzi, Erentxun, Igeleta.

Apirilak 11: Birgala Goien, Maeztu, Antoñana, Kanpezu

GASTEIZKO IBILBIDEA:

Ikusi banatutako orria.

LEHEN KILOMETROTIK AZKENERA:

- Mauleko 1. Km.a Jean Luis Davanta euskaltzainak egingo du
- Irunëan azken kilometroetan parte hartuko dutenak, gizarte eragileak, alderdi politikoak, sindikatuak, eta euskalgintza izango dira; nazio mailako erakundeak guztiak.
- Azken kilometroa, beti bezala, AEK-k egingo du



Amaia Apaolaza, Gasteizko korrika antolakuntzako kidea

korrika kulturala

Apirilak 9.

Bertso poesia, Hala Bedi tabernan. 20.00etan
Iñaki Gurrutxaga, Manex Agirre, Joan Mari Juaristi, Oihane Perea eta Asier Otamendi

Apirilak 10.

Gazte poeten errezitaldia. Unibertsitate pabilioian. 12.00etan. Korrika jaiaren barruan.

korrika Apirilaren 4an GASTEIZEN ere hasiko da

Gasteizen hogei bat ekintza antolatu dira Korrika Kulturalaren inguruan; guztiak bereziak izan arren badago bat nabarmen. **Korrikaren GALA**z ari gara, "Maulen Korrika hasiko den egun berean izango da Gasteizen ikuskizun berezi hau, Korrikaren hasiera ospatuko dugu horrela", azaltzen du Apaolazak. Azkena aretoan izango da apirilaren 4an (ostirala), eta ikuskizun desberdinez osatua izango da: kantaldiak, moda-desfilea, dantza eta bakarrikizketak, umore betiere nagusi. Honen ostean, berriz, afari atsegina dastatzeko tarte ere izango da giro ezin hobean. Informazioa: 94526904



BASETXE, BASERRIKO BIZIR OIHANA ZABALETA eta SAIOA AGINAKOREN ES

Oihana Zabaleta eta Saioa Aginako dira aurtengo Basetxeko neguko edizioan izan diren arabar bakarrak. Bi gasteiztar hauek hiru aste eta astebete, hurrenez hurren, egon dira Aralarreko bordan. Irabazleak izan ez arren poz-pozik bueltatu dira jaioterrira, "bidaia irabazi ez badugu ere lagun onak ezagutu ditugu bertan". GEU beraiekin egon da telebista saioaren gora-beherez mintzatzen.

-Zergatik aurkeztu zineten castingera?

(Oihana) Langabezian geratu nintzen eta iragarkia telebistan ikusi nuen egun berean deitzea bururatu zitzaidan. Ostiral batean deitu eta astelehenean bertan deitu zidaten castinga egiteko. (Saioa) Nik aurreko urteko Basetxea jarraitzen nuen eta publizitateak eta sariak bultzatuta aurkeztu nintzen castingera.

-Zer-nolako frogak pasa behar izan zenituzten aukeratuak izateko?

(Oihana/Saioa) Oso sinplea izan zen, zure burua aurkeztu behar zenuen eta ondoren kanta bat abestu. Nik (Oihana) ikastolako bertso bat bota nuen, oso gaizki abesten baitut eta lotsa ematen zidan. (Saioa) Nik Sorotan Bele taldearen 'Arotzak zuen alaba' kantatu nuen (ja, ja, ja). Ondoren inkesta antzeko bat egin ziguten: zein da zure liburu gustukoena, musika mota, bikotea daukazu?,...; galdera hauek zure profila eta aurkezpena egiteko ziren. Niri (Oihana), adibidez, mutila neukan galdetu zidaten eta ezetz esan nuen, baita saioa mutila bilatzeko aukera ona izango zela ere; ordutik esan dute ni Basetxera mutil bila joan nintzela, eta hori ez da egia... (Saioa) Momentuan burura

datorikizuna erantzuten duzu, eta beraz, ez da batere erreala...

-Castingaren bidez zer da zuen ustez bilatzen zutena?

Momentuan ez ziguten esan, baina beranduago aipatu digutenez aurtengo saioan aniztasuna bilatu dute, jende nagusiagoa -nire kasuan bezala (Oihana, 29 urte)- eta gazteagoa ere (Saioa, 20 urte), baita Euskal Herri osoko lagunak ere, baina Iparraldetik ez zen inor aurkeztu. Gainontzeko herrialdeetatik 300 lagun aurkeztu ginen eta horietatik 15 izan ginen hautatuak. Nire ustez, (Oihana), arabarra eta neska izanda aukera gehiago zeuden aukeratuak izateko.

-Espero zenuten aukeratuak izatea?

Ez, baina behin horrela izanda "aurrera" esan nion nire buruari (dio Oihanak). Nik, berriz, zalantzak izan nituen garai horretan azterketak nituelako, baina azkenean animatu nintzen (Saioa).

-Programaren lehen eguna platoan izan zen. Nolako esperientzia izan zen hura?

Guk pentsatzen genuen aukeratuak izan ginen guztiak sartuko ginela eta, horregatik, makilen kontu horrekin egin zuten aukeraketarekin 'bajoi' apurra

izan genuen. Dena den, eguna oso luzea izan zen, izan ere, arratsaldeko lauretarako platoan geunden eta saioa bederatzietan hasi zen, gaueko hamabiak bitartera, hortaz, ezagutzeko tartea izan genuen bertan.

-Tirabirak egon dira bizikidetzako egun horietan?

Goseagatik batez ere (dio Saioak); unti bat hil genuen jateko eta Josean barazkijalea da, beraz... Jonek ere 'prontoa' ateratzen zuen azkar gosearen erruz; normala da (barre egiten du). Halere, (Oihana) elkarren artean desberdinak eta herri ezberdinetakoak izanik oso ondo moldatu gara, nahiko talde jatorra egin dugula pentsatzen dut.

-Zu Saioa ez zinen Basetxean lehenengo egunetik sartu. Beranduago sartu zinela nabaritzen zenuen haiek zurekiko zeukaten jarrerarengatik?

Oso ondo hartzen zaituzte, baina egia da nabaria dela beraiekin egun gehiago daramatzatela elkarrekin, euren arteko konfiantza eta konplizitatea handiagoa da, gauza gehiago bizi baitituzte, zerbait susmatzen zen (ja, ja). (Oihana) Horrek nolabaiteko lotura sortzen du.

-Ze, paktu antzeko bat sortu al zen?



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • T. 945 430 073



XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ



Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoitzko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

AUPENA, UTIK

erabaki nuen nik positiboak jasoz gero Joxeani negatiboa ez niola emango eta zozketa egingo nuela guztien artean (barre egiten du). Nire ustekaberako, nik jaso nituen negatibo guztiak eta duelura bidali ninduten, orduan kamaren aurrean paktua zegoela aipatu nuen eta

finalistatzat ikusi nuen, baina gero paktua apurtu nuenean erabat kontziente nintzen kanporatuko nindutela.

-Zein da bordan pasa duzuen egoerarik latzena?

Niretzat gogorrena hotza izan da (Saioa)... behin 20 gradu zero azpitik egin zuen, lentiletako ura ere izoztu zen..., niretzat sufrimendua zen gauero lotara joatea, egiten zuen hotza dela-eta iratzartzen nintzen... (Oihana) Niretzat hotzaz gain, gosea eta komunera joan beharra izan dira egoera gogorrenak; hamahiru egun egon nintzen komunera joan gabe eta gero tokatu zitzaizkidan izugarrizko mina sentitu nuen... Izan ere, gorputzari astindu handia eman diogu eta gutxi jan dugu.

-Nola definituko zenukete Basetxea?

(Biak) Telebistako programa bat bezala, azken finean hori da eta, reality show-a. Jakin behar duzu horretara zoazela, beraz, biziraupena bikoitza da, gosea eta hotza direla eta... Gainera, programa grabatzeko bitarteko gutxi zeudenez, kamera bakarra, gauza interesgarri bat egiten ari bazara itxaron behar duzu ze agian beste norbaitek beste zerbait egiten dihardu eta bi gauzak grabatu nahi dituzte.

-Esperientzia hau berriro errepikatuko al zenukete?

Bai (biek). Nik atera artean ez dut guztiz dastatu (Saioa), zeren han nengoenean pentsatzen nuen, zer egiten dut nik hemen?, etxean egon nintekeen bero-bero, lagunekin, nahi dudana jaten, nire ohean lo egiten..., baina gero kanpora ateratzean benetan izan duzun aukeraz jabetzen zara. Nik 'bajoiak' eta 'subidoiak' (Oihana) izan ditut, zerk demondre ekarri nau hona?, zertan nabil?, galdetzen nion nire buruari, baina egia da bertan ikusi ditugun paisajeak ederrak izan direla, ilargi beteak dena argiztutako gauak..., askatasuna sentitzen zen baserriaren bakardadean...



Oihana Zabaleta, Saioa Aginako eta Unai Azurmendi, Basetzeko biztanleak

(Barreak)... Beno, orain esan daiteke, ze telebistan gero ere aipatu genuen, nahiz eta hasiera batean ezkutukoa izan eta kamaren aurrean ez genuen aipatu (dio Oihanak). Programan hasieratik geundenon arteko paktua egitea erabaki genuen, hau da, berriei -ostera sartu zirenei- negatiboak emanez eta ez gure artean. Gauza da, Joxean sartzean nik (Oihana) paktua apurtu nuela; izan ere, Joxeanek eginahal handia egin baitzuen taldean sartzeagatik eta dueluan oso ondo aritzen zen, gainera oso ondo moldatzen nintzen berarekin, hortaz,

lehenengoz programa zen bezala hartu nuen, hots, joko huts gisa... Saltsa pixka bat eman nion saioari eta "rival number one" nintzenez bota ninduten..., baina oso ondo pasa dut, gainera hori jokoaren parte zen eta beste gauza bat da benetako bizitza, eta horretan benetako lagunak dira denak.

-Zuen buruak irabazletzat hartu zenituzten momenturen batean?

(Saioa) Nik ez, ja, ja, ja..., berria izateagatik botako nindutela sumatzen nuelako... (Oihana) Nik nire burua

APIRILA

EGUNKARIAREN ALDEKO BATZORDEA. Informazioa:

-Auzoetako batzordeak eratu dira, egitasmo berriari laguntzeko.

-Harpidetza egitea gogorazten da.

-Ekimenetan parte hartzea: "Ostegunak eguzkitan" ekimenari (ostegunero, goizeko 11etan), adi!

-Honako toki eta herrietan ere batzordeak eratu dira: Gasteizko Unibertsitatean, Laudion, Amurrión, Legutian, Errioxa-Oionen, Agurainen eta Trebiñon.

Egunkaria aurrera! Euskal Prentsa aurrera! Informazioa: 945251084

Egunkaria

1

Parral taberna,
Exhale.
Rock kontzertua.
20.30etan

3

Marea bizia-kanpaina:
Galiziara, apirilaren 3, 4, 5 eta 6an; eta Euskadiko kostaldean unean-uneko beharren arabera, garbiketa-lanetan lagundu nahi duten boluntarioentzako poltsa irekitzeko asmoa dago. Txangoak egunbetekoak izango dira, larunbat nahiz igandez. Informazioa: ERDU, 945161687, edo 010era deituta

4

- Informatikari euskaldunen IV. Bilkura. Informatikaria gizarte elektronikoan. Miramar Jauregian. Donostia. Antolatzailea: UEU. www.ueu.org / titulazioak@ueu.org

4

- KORRIKA 13ren HASIERA: Maule-Iruñea. Apirilaren 4tik 13ra (Gasteizen, apirilaren 10ean, arratsaldeko 7.00etan)

KORRIKA-GALA Gasteizen. Azkena aretoan, ikuskizun desberdinez osatua: kantaldiak, dantza eta bakarrizketak, umore betiere nagusi. Honen ostean: afari atsegina dastatzeko tarteak ere izango da giro ezin hobean. **Informazioa: 945269043**

5

Geu aldizkaria- ren mahaia erdi aroko hiriguneko azokan. Goizeko 10.30etatik aurrera

7

GEUJIRAN, geu elkarteak eta geu aldizkariaren irratiaio berri, fresko eta bizia. 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n

7 - 8 - 9

TRIKITRAKA TRIKITRON
Euskal Telebistako Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen "Trikitraka Trikitron" ikuskizuna Gasteizera iritsiko da! **TARTE BEREZIA EMAN ETA SARTU IRUDIA**

- Lekua: PRINCIPAL antzokia - Eguna: Apirilaren 7, 8 eta 9an - Ordua: arratsaldeko 7etan

Hori dela eta, zu eta zure gurasoak gonbidatuta zaudete Principal Antzokian eskainiko den emanaldian parte hartzera.

- Sarrerak hartzeko lekua: Principal antzokia (apirilaren 4 eta 5ean, arratsaldeko 5.30etatik 8.30etara). Pertsona bakoitzak gehienez 6 sarrera hartu ahal izango ditu. Sarrera bakoitzarengatik 1eko prezio sinbolikoa eskatuko da, eta BETIZU KLUBEKO bazkide izanez gero, txartela eraman eta 50 zentimo besterik ez da ordaindu beharko.

OHARRA: Sarrera kopurua mugatua denez, agortu bitartean banatuko dira.



8

- KORRIKA 13-ADURTZA-SAN KRISTOBAL
Apirilaren 8an, Sendabelarrei buruzko Hitzaldia. 20:00etan, Hegoalden Gizarte etxean.
Apirilaren 10ean, Ongietorria, 19:15etan, Adurtza eta H. Fournier kaleetako bidegurutzean

- Parral taberna.

Anastua Jazz Perku Band.
20.30etan

9

Lehiaketa: apirilaren 9ra arte: Urruzuno literatura lehiaketa. Prosa eta Poesia. DBHko 3. edo 4. Maila, Batxilergoa edo Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleei zuzendua. Antolatzailea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko haragitegirik zaharrena

Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

10

KORRIKA GASTEIZera helduko da, 19.00etan!!! Goazen bai
Erne GEU ELKARTEKO ETA GEU ALDIZKARIKO KILOMETROARI!!:
ARTAPADURA KALEKO BUKAERATIK DONOSTIA-BAIONA KALEEN
ARTEKO ERROTONDARAINO DOAN KILOMETROA EGOKITU ZAIGU.
Etorri gurekin Korrika egitera: Euskaldunon Egunkariaren
omenez egingo dugu Korrika.



12

- Arabako Natura
Institutua (ANI): Hegaztien
kantuen identifikaziorako
irteera. Apiriletik azarora
bitartera hilero ekintza bat
antolatuko
Informazioa: 945246606

12

- Nazio barruko eta nazioarteko
adopzioari buruzko II.
Jardunaldiak. 12an eta 13an
Europa biltzar jauregiko Francisco
de Vitoria aretoa. Informazioa:
www.asaldenia.org /
info@asaldenia.org

13

Geurekin Mendira
Apirilaren 13an
GORBEIA(1481) Azerotik
Informazioa: 945140158
(Kike)
Irteera tokia: Lovaina
plazan, goizeko 9.00etan

14

- **GEUJIRAN**, geu
elkartea eta geu
aldizkariaren
irratsaio berri, fresko
eta bizia. 23.30etatik
24.00etara, Radio
Vitoria-n

14

- **Gasteizko Ikus-entzunezkoen 18.**
Jaialdia-2003: materiala aurkezteko epea
amaitzen da

15

- **Amasa-Villabonako V. Amodiozko gutunen lehiaketa-2003** (16 urtetik
gorakoentzat). Epea: apirilak 15. Antolatzaile eta informazioa: Manuel
Larramendi Kultur Bazkuna eta Amasa-Villabonako Euskara Batzordea

21

ZULOA IRUDIA:
FAUSTO GROSSiren
"Puras Apariencias"
erakusketaren azken
eguna. Teknika: titanio
gainean egindako
anodigrafiak. Artista
honen lehen erakusketa
Gasteizen

22

Parral,
Tobako Road.
Kontzertua
20.30etan



15

- **Parral, Txotxongiloak.** El Tenderete taldea:
"La Milonga del Babal?n" 20.30etan

28

**PRUDENTZIO
DEUNA.**
Zorionak
arabarroi!

29

Geu elkartearen
eskutik, **GILKITXARO**
antzerki taldea:
"ELEBATOR"
Parral-en, 20.30etan

Beste

VI. Igartza Saria: Literatur
sorkuntzako beka idazle
berrientzat. Bekaren kopurua:
6000 euroko dirulaguntza. Epea:
uztailak 1. Informazioa: Beasaingo
Udala-Euskara Zerbitzua

MERKURIO-ALDIBOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

ALCALINA

ZURE HARATEGIAK


Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



LABURPENA

4. atalaren LABURPENA

Afaria

Rikardo Arregi Diaz de Heredia

Jon barrura sartzen da, komunera, eta bertan galderak eta erantzunak ezinbestekoak direla erabakitzen du. Ateratzean neskak bere irribarre intimoena eskaintzen dio. Lehen galdera, maleta. Neskak berea edo berarentzat dela dio; Jonek, apur bat galduta, ez daki ondo zer entzun duen. Gairik gai doaz afarian zehar, eta azkenik, familiaren gaiari ekiten dio Jonek. Neskaren erantzunekin Jon berriro galdu egiten

da, neskaren irribarrean. Neskak eskua jartzen dio eskuaren gainean, ondoren erpurua hartu eta laztanduz... Baina Jon ziur al dago berarekin larra jo nahi izateaz? Sarrerako atea irekitzen da. Auto berdeko neska sartzen da. Bi nesken aurpegiak berdin-berdinak dira... Bikien Kluba! Berarekin afaltzen ari den neskak Asun izena du; Joni ez zaio izena gehiegi gustatzen. Badirudi une horretan Asunen eskuak urduritasunak eragindako mugimendua egin duela. Asun altxatu eta neska harengana doa. Jon irratiko gaiaz oroitzen da: klonazioa.

JOXEAN SAGASTIZABAL

5. "KALIFORNIAKO MAHASPASAK"

Asun bikiklonarekin hasi da hizketan, Jonen begiradaz gain jatetxean dauden guzti-guztionak haiengana behartzen dituztela, builaka. Entzundakoaz puzzle xelebrea hasten da osatzen mutila, baina dago xelebreegia ez oten den. Beste esplikazioren bat egongo da...edo. Asunek eskutik helduta dakar, dakarkio, bikiklona, zeinak begibistakoa edo sudurusainekoa denez ez luke alkoholemiaren kontrola pasako ezta unibertsoko planeta hordienean ere. Asunek ekiten dio, azkar, tono etsitu-suminduz, bikiklonari begirada errez:

-Hau, alproja ez beste inor bezalako alproja hau nire ahizpa da, honez gero pentsatuko zenuenez.

-Kaizzo...-diotso superalprojak.

...eta...bueno, egia berdaderoa

esan beharko dizugu; dizut, hau ez baita gauza.

Jonek isilik dirau, eta bikiklonak ere; ez, zerbitzariari mintzo:

-Aixu, mexedex...bizki...whisky!

Zerbitzaria dudatzen, "normalei" begira.

-Ekarriozu, eta niri beste bat; zuk, Jon?

-Nik...pomelo zukutan beratutako Kaliforniako mahaspasak, mesedez.

-Segituan.

-Ez al duzu ulertzen zer gertatzen den, Jon? Esplikatzeko lotsa pasarazi behar didazu?

-Ez nizuke inongo lotsarik pasarazi nahi, benetan, zeozter ulertuko banu.

-Bueno, hauxe da kontua...

Zerbitzariak edariak dakartza. Neskek basoak bakeroen estiloan husten dituzte.

...mutilak txandakatu egiten ditugu,

horixe. Afaltzera konbidatu ninduzunean ez nintzen konturatu Victorrekin zita nuela egun horretantxe; horregatik saio azkartxo bat egin dugu autoan zain eduki zaitudan ordu erdian. Gero, egia esan, nire asmoa zurekin Sodomatik Gomorrara ibiltzea zen, baina nire ahizpa zorioneko hau -por zierto, Marga du izena- (Marga altxatu, "encantada" diotso, pomelo zukutan beratutako Kaliforniako mahaspasak baldarraren baldarrez bota eta musu hiper-handi bat ematen dio ezkerreko belarrian, ezpainak direlakoan) alkoholak nahastu eta tokatzen ez zitzaionean azaldu da.

Pabloz gogoratu da Jon, hainbatgarren aldiz.

-Eta zer duzue maletetan?

© Joxean Sagastizabal eta Geu aldizkaria

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

azkarprint
Imprenta / Imprimategia
S INPRIMATEGIA S
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

gure gizartean nagusi den sexualitateari buruzko kontzeptutik ihes eginez



FANTASIAK

EMAIZE

Sexologia Elkarte

“Atsegin dudan mutil bat ikusiko dut. Ez dut inoiz berarekin hitz egin, baina badakit gaur ikusiko dudala. Betiko tabernan agertu da. Elkarri begiratu eta, une horretan bertan, gaurko eguna berezia izango dela badakit. Keinu bat egin eta, hitzik esan gabe, komunera dator nire atzetik. Elkar musukatzen hasi gara, elkar ukitzen, elkar masturbatzen..., ez ditugu ia arropak kendu behar izan. Nire titiburuak gogortzen sentitu ditut eta bustita nagoela ohartu naiz. Bero-bero gaude. Plazer izugarria sentitu dut, eta berak ere bai. Une horretan ate joka hasi dira, baina ez digu axola. Gure oihuak entzutean atea jotzeari utzi dio. Musu luze bat eman eta agur esan diogu elkarri, bestearen izena galdetu ere egin gabe.”

entretanimendu moduan edo aspertuta daudenean (autobus bidaia luze batean, adibidez) denbora azkarrago pasatzeko. Gure erotikaren alderdi garrantzitsua da, azken aldian hainbeste goratzen



Antxon Olariaga
(Ezkatuko Maitea)

dut, perbertitua ote naiz?” “Zergatik berotzen ote nau hainbeste tipo horrek, ni naizen gizon puskarakin?” “Nire azken fantasiako protagonista matematikako irakaslea da, zakarra eta zatarrena den arren.” Argi izan behar dugu egoera berezi batetan pentsatuz berotzeak edo masturbatzeak ez duela esan nahi egoera hori benetan bizi nahi dugunik. Hori da irudimenaren benetako balioa: kontzientziak jartzen dizkigun oztipoetatik eta aurreiritzietatik libre dagoela. Eta burutazio horiekin ez diogu inori kalte egiten.

Gizakiok gure irudimenarekin jolas egiteko gaitasuna dugu, gure gustuko istorioak asmatzeko gaitasuna. Horixe gertatzen da fantasia erotikoei. Gure mundu pribatuan, gure lorategi ezkutuan eta begirada eta ahots zorrotzetatik babestuta, gure irudimena aske utz dezakegu, bizitza errealean inoiz aurkituko ez ditugun pertsonekin plazera aurki dezakegu (ziurrenik bizitza errealean pertsona horiek ez gintuzten erakarriko). Gure fantasietan ez dugu ez lotsarik ez tabu edo beldurrik, guztiz askeak gara.

diren praktikak baino garrantzitsuagoa agian. Aholkularitza “sexualeko” programak ikustea besterik ez dago: zeri buruz galdetzen du jendeak? Gehienetan sexu organoen erabilgarritasunari buruz eta ez gure irudimenak eskaintzen dizkigun aukerei buruz.

Gure burua guztiz askea da une horietan eta ez diogu inori ezer esan behar, ezta gure bikoteari ere. Bakarrik zeundenean berotu zintuen egoera edo istorio hori ez kontatzeagatik ez diozu gezurrik esaten zure bikoteari.

Beharbada kontatzeko gogoia izango duzu edo zuen hurrengo jolas erotikorako proposatu nahi izango diozu. Agian zure bikoteak ere egoera hori bizi nahi izango du. Edo agian ez.

Horregatik, ezer baino lehen, gogoan izan zure fantasiaz zureak direla, zure buruan daudela eta ez duzula inori kontatzeko derrigortasunik, edo ez dituzula derrigorrez bizi behar. Horretan datza fantasia erotikoen benetako balioa, ondorioz gure sexualitatea asko aberastuz.

Pertsona askok berotzeko asmatzen dituzte egoera horiek. Beste batzuek

Hala ere, pertsona batzuek beldurra senti dezakete beren kontzientziarako, moralerako edo beren gustuetarako “gogorregiak” iruditzen zaizkien fantasien aurrean: “Jo egiten nautela imajinatzen



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



egunkaria

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aitzogile kalea (Kutxi), 33 - Tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ZURBAOKO EUSKALDUNAK XVIII. MENDEAN

Angel Ibasate Lozares, ikerlaria

Arabaren euskarak izan duen presentziari buruzko datuak, urriak eta pisu handirik gabekoak direla iruditu arren, oso baliagarriak dira espazio horretan hizkuntzaren geografia historikoa ikertzeko, eskualde euskalduntzat hartutako esparruaren barnean beste puntu ziur bat kokatzeko ez bada ere. Horregatik, behin baino gehiagotan iradoki izan dut bildutako datuekin edota eskuratzen direnekin euskararen erabileraren lekukotasunak dauden tokien zerrenda zehatz bat egitea egoki izan daitekeela (alfabetikoki, kronologikoki eta lurraldeen arabera ordenatuta), eta zerrenda hori egiteko oinarri

ona zegoen jada Henrike KNÖRREN Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Álava = Arabako euskarari buruz jakin behar dena liburuan (Vitoria-Gasteiz: Funcación Caja Vital Fundazioa, 1988), eta zerrenda hori garatu eta handitu dute Jabi OTSOA DE ALDAK eta Estibalitz BREÑAS GONZALEZ DE ZARATEK Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Álava liburuan (Vitoria-Gasteiz: GEU Aldizkaria-Elkartea, 2002), bertan orain arte ezagutzen diren kasik lekukotasun guztiak, xumeagok edo sendagoak, bildu baitira.

Datu txikitxo horietako bat aurkeztuko dut gaur. Zurbao ingurukoa da eta kronologikoki XVIII. mendearen lehen erdiari dagokio. Egia da Gasteizko ipar-ekialdean kokatutako inguru hori inolako zalantzarik gabe inguru euskalduna zela XVIII. mendean; baina egia da baita ere ez zegoela Zurbao euskaraz mintzo zirela erakusten zuen lekukotasun positiborik eta, beraz, izen hau ez zetorren landutako hizkuntz mapetan.

Kontuan hartu dugun datu hori Manuel Joaquín de Uriarte y Remírez de Baquedano jesuitari (Zurbao 1720 - Gasteiz 1804) dagokio eta jaiotzez euskaldun zela adierazten du.

Personaje horren bizimodu gora-beheratsua eta nortasun bitxia bere lan idatzietan eta gutunen liburuan azalduta gelditu ziren. Eta batari eta besteari buruz dakiguna P. Bayle jesuitari esker dakigu, Manuel J. URIARTEREN eskuizkribua, Diario de un misionero de Mainas / Transcripción, Introducción y Notas del P. Constantino Bayle, S. J. (Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto Santo Toribio de Mogrovejo, 1952; 2. liburukia, "Misionalia Hispanica" liburutegia, VIII-IX) kaleratu baitzuen eta bi liburukietako sarrera

zabaletan, egilearen biografiaz gain, honen gutunen liburuarren berri ugari eman baitzuen. P. Baylaren edizio hau baino errazago eskuratu ahal izango dugu agian datu horietan oinarrituta Ángel MARTINEZ SALAZARREK idatzitako Presencia alavesa en América y Filipinas (1700-1825) (Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1988, 293-297), eta Jaburpena Crispin SAEZ DE CAMARA Y GUEVARAREN monografian, Zurbano: El ayer de un pueblo de la Llanada alavesa liburuan (Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1990, 70-71 orr.) dago. Hemen, garrantzi handiena duten datak azaldu baino ez ditugu egingo.

Zurbaoan jaio zen, 1720ko irailaren 14an, eta bertan bizi eta hezi zen 1734an Artzapezpikuaren morroi izateko Sevillara bidali zuten arte; ikasketak honen etxean jarraitu zituen gero. 1737. urte amaieran, Jesusen Lagundian sartu zen nobizio gisa eta Carmonan eta Granadan jarraitu zuen ikasten gero. Amerikan misiolari izateko aukeratu zuten gero, berak hala eskatuta, eta 1742ko abenduan itsasoratu zen. Quiton egin zituen zenbait urte, bertan amaitu zituen ikasketak eta 1747an apaiz ordenatu zuten. Bertan gramatika irakasten zenbait urte

egin ondoren, 1750ean barrualdeko misioetara joan zen eta bertan jardun zuen lanean, 1767an jesuitak Ekuadortik (eta Espainiatik) bota zituzten arte. Ravenara erbesteratu zen eta 1773an Klemente XIV.ak dekretatuta lagundia desegin egin zen; Italian bizi izan zen 1798 arte, jesuita ohiei beren jatorrizko herrialdeetara itzultzeko baimena eman zitzaizen arte, alegia. Orduan Gasteizera itzuli zen eta bertan bizi izan zen hil arte, 1804ko martxoaren 16 arte. Idazpenean honakoa dio: "presbiteroa, desagertutako Jesusen Lagundiko botoduna" ("jesuita ohia" dio albo batean), eta eskumenak kendu zizkiotenez, testamenturik ez zuela egin dio.

Aztergai dugun datua gutunen liburutik argitaratu gabeko zatitik (zatirik handiena) Bayle ateratako berri bati esker dakigu (badakigu gutun ugari idatzi zituela, baina soilik lau argitaratu ziren artean bera bizi zela eta berak ezer jakin gabe, Cartas edificantes y curiosas escritas... por algunos misioneros de la Compañía de Jesus liburuan, XVI. liburukian [Madrid: Manuel Fernández de Alarguna, 1757], 57-111. orr.). Bayle dio bai Diario eta bai koadernatutako liburuki bat eta bi gutun sorta Graño jaunarenak zirela, baina ez du esaten nola iritsi ziren

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

BAR KLAKÉ

KVTXA, 2
TFNO. 143883

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Artisau tailer denda

- * Lore lehorrak
- * Larrua
- * Egur tailak
- * Konplementuak
- * Zilarra, etab.

KOKOPELI

ARTISAUTZA

LANAK ENKARGUZ EGITEN DIRA
Ezkontzak - Enpresa opariak

Nueva Fuera (Kanpokale Berria), 4 behea
Tel. 605 773 995 • Gasteiz

beragana (agian urrutiko senitartekoren baten bidez?) eta ezta non dauden ere. Gaur egun non dauden jakiteko ahalegina egin bada ere, ezin izan da jakin.

Horrela, beraz, 1741ean Granadatik arreba nagusi María Franciscari (Gasteizko Santa Kruz monasterioko moja domingotarra) Artzapezpikuari eta nobiziatuko lagunei emateko gozokiak eskatu zizkion eta berarentzat, berriz, honakoa: "un Cristo devoto, no de precio, un **Kempis en vascuence** y algunos libros" (Diario..., I, XV. or.). Kempisa Amerikara joan zenean berarekin eramango zuen, baina ez da ageri jesuitak kanporatu zituztenean hauek utzitako liburuen artean, 1768an hauen inbentarioa egin zenean, nahiz eta zehaztu gabeko ehun liburu anonimoetako bat, tratatu espiritualetako bat, izan daitekeen ("Diario..., I, XXXII. or., 10. oharra).

Bigarren lekukotasuna beste gutun batean dago; Italiatik idatzitako datarik gabeko gutun bat da, dirudienez Ravenara iritsi berritan idatziko zuena. Hala dio: "**Vamos estudiando la décima tercera lengua**" (Diario..., I, XLI. or.). Italiarari buruz ari da, noski; gainerako hamabiak hauek lirake: Yurimaguena, Yameoena, Massamaeena, Yquitoena, Morumena eta Tikunena, hauekin harremanak izan baitzituen berak dioenez; ketxuera eta omagua, katixima txiki batzuk dituztenak; latina, grekoa eta hebraiera, bere apaiz karreraren ikasitakoak; gaztelania, noski;

eta euskara, Baylek dioenez bere sortzetiko hizkuntza euskara baitzen (Diario..., I, XLI. or., 13. oharra).

Hirugarrena, adierazgarriena, urtea zehaztu gabe irailaren 26an Italiatik idatzitako beste gutun batean ageri da. Sinaduraren aurretik hala ageri da: "**Beti, beti zurea Jesus bioren**". Begien bistakoa denez, irakurketa, transkribapen edo inprimaketa okerrak daude, eta Baylek bere itzulpenean horrela ematen du "Siempre, siempre tuyo en el Corazon de Jesus" (ib.). Baylek ez du azaltzen nori zuzenduta zegoen gutuna, baina familiartekoren bat izan behar zuen, gorde diren guztiek halako izaera baitute (Diario..., II, LI-LII); eta gehienak, gainera, bere anaia Jose Agustin apaizari edota bere arreba mojarri idatzi zizkion (nik tonuagatik honi zuzenduko ziola uste dut).

Beraz, horrelaxe ezagutu dugu Zurbaoko euskaldun bat, XVIII. mendearen lehen laurdenaren amaiera aldera jaiotakoa, bere bizitzan jaioterritik urrun batetik bestera ibili arren, hirurogei edo hirurogeita hamar urtera ere bere ama hizkuntza maitasunez gordetzen zuena.

Berri horiek agerian utzi dute, gainera, bere familiako kiderik gertukoenak ere euskaldunak zirela. Eta zein ziren bere familiako kide horiek? Baylek zioenez, aitoren semeak ziren, nahiko maila ona eta altua zutenak (Diario..., I, XII eta L orrialdeak). Baina Micaela J. PORTILLA

VITORIAK, Torres y casas fuertes en Alava liburuan (Gasteiz: Publicaciones de la Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad, 1978, I, 531-534. orr. eta II, 1121-1122 orrialdeak) argi eta garbi erakusten du gizon honen arbasoen noblezia, Gaztelan eta Nafarroan kargu handiak bete baitzituzten, bai aitaren aldetik (Zurbano familia, eta hauekin ahaidetuta zeuden Uritarte, Isunza eta Lecea familiakoak; Uriarte familiakoak ezkontza bidez ahaidetu ziren hauekin eta, horrela, eliza aurreko jauregi handia hartzen zuen Zurbano etxeko-honen historia eta deskribapena bildu ditu SAEZ DE CAMARAK, o.c., 75-76. orr.-, Okariz jauregiko eta Ilarduia eta Araiko Lecea dorreetako jaun bihurtu ziren) eta bai amaren aldetik (Remírez de Baquedano eta Raja, Ripodas jauregiko jaunak). Uriarte eta Remírez de Baquedano neba-arreba guztien bataio agirian, beti, hauen gurasoei eta aitona-amonei "Don" eta "Doña" tratamendua eman zitzairen eta aitari Santiagoren zaldun izaera esleitu zitzaion beti.

Horrek XVIII. mendeko une haietan Zurbaon euskararen presentzia unibertsala zela adierazten du, gizarte mailaketarekin batera hizkuntz bereizketarik egin gabe eta elebitasunarekin bateragarri zelarik. Badirudi Zurbaoren egoera bi mende lehenago Gasteizen G. B. Venturinoren lekukotasunak adierazitakoaren parekoa zela.

© Angel Ibasate Lozares eta Geu aldizkaria



KID

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

BINGEN MENDIZABAL, musikagilea



New Yorketik etorri berria (Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinekin batera, Kirmenen poesietan oinarritu soinuez lagundutako poesia-bira bat egitetik), eta urteko hilabete gutxi pasa diren arren Bingen Mendizabalen izenak gogor jo du urte berri honetan; batetik, Korrika kantaren egilea izateagatik, bestetik, bere aurtengo proiektuen artean “Skin Deep” izeneko film estatubatuarren musikaren egilea delako. Baina ez da aurkikuntza berria, Bingen beti egon baita hemen, hor eta han; Hertzainak eta Nahiko musika taldeetako kide izatetik zinemako musika ekoizlea izatera pasa eta badira bi hamarkada luze gasteiztarra musika munduan murgilduta dagoela.

Korrikaren kanta egitea proposatu ziotenean jarraian pentsatu zuen bere gustuko abeslariekin; hortxe, beraz, Ruper Ordorika eta Mikel Laboaren ahotsa bereziak Igor Elortzaren hitzekin. “Skin Deep” filmean, aldiz, Bingenek Hasier Oleaga, Arturo Blasco, Jona Kañaberas eta Borja Ramosekin egin du lan: “lagunen arteko mesfidantzaz, arrazen arteko desberdintasunaz hitz egiten duen film honetarako musika normalean hemen funtzionatzen ez duen musika mota da, musika mota ezberdinak uztartzen diren horietakoa, eta aukera hori aprobetxatzea gustatu zait”.

Txikitatik musikarekin harremanetan (txistua jotzen hasi baitzen), Bingen Carmelo Bernaolaren ikaslea dugu. Akaso ikasle fina eta aurreratua? “Ez, ez..., (barre egiten du), ezertan, ja, ja...”. Mendizabalen aburuz, oso irakasle ona zen Bernaola, baita gogorra ere, “lan egitea eragiten zigun eta bere irizpideak oso zehatzak eta zorrotzak ziren, bere bideari ekiten zion; gerora jakin nuen ez dagoela bide bakarra baizik eta asko, eta orduan bakoitzak bere aukera egiten duela eta horretan saiatu behar duela, Bernaolak egin bezala”.

-Hertzainak eta Nahiko taldeetan hasi eta denbora aurrera joan ahala rock egitetik zinemako musikako egilea izatera pasa zinen. Nola eman zenuen jauzi hori?

“El reino de Victor” Juanma Bajo Ulloaren filma izan zen zineman egindako nire lehenengo lana... Desagertutako ikus-entzunezko zentroan lagunak nituen eta han ezagutu

nuen Juanma. Berari esker sartu nintzen honetan eta egia esateko zorte kolpe itzela izan zen. Hortik aurrera dena ezin hobeto joan da, beraz, ez naiz ezertaz kezkatzen.

-Aukera egonez gero planteatu al duzu inoiz gaur egun musika talde baten partehartzaile izatea?

Zenbat eta helduagoa izan orduan eta zailago ikusten duzu zure burua musika talde batean, independenteagoa zara...; gaztea zarenean gogoia daukazu talde baten partehartzaile izateko baina gero, ez dakit, niri behintzat gertatzen zait... Baina talde batean sartzeak pentsatzeko modu bat eskatzen du eta ez dut nire burua horretan ikusten... Bestela izan zitekeen, baina sekula ez gaur egun ulertzen dena talde komertzial batean.

-Zine-musikako konpositorea izanda, batzuetan musikari filmari baino garrantzi gutxiago ematen zaiola ikusteak zer dakarkizu?

Oso onartua daukat, zinemako musikariaren pertsonalitatea horrelakoa da eta. Ez zaigu aurpegia ematea gehiegi gustatzen, bestela honetan lan egin beharrean agertokietan ibiltzen diren horietako musikariak izango ginatke. Nolanahi ere, lanbide honetan pentsatu behar da taldean lan egiten duzula eta filmen batean norbait bestea baino gehiago nabarmentzen bada ez dela ona, esaterako, aktore ona besterik ez dagoenean eta gainontzekoa txarra; hobe da dena orekatuta dagoenean.

BINGEN MENDIZABALEN FILMOGRAFIA

- **El reino de Victor**- Juanma Bajo Ulloa-1989
- **Alas de mariposa**- Juanma Bajo Ulloa-1991
- **El ojo del fotógrafo**- Iñaki Dorronsoro-1992
- **Mi hermano del alma**- Mariano Barroso-1993
- **Como ser infeliz y disfrutarlo**- Enrique Urbizu-1993
- **La madre muerta**- Juanma Bajo Ulloa-1993
- **La Regenta**- Fernando Méndez Leite-1994
- **Dame Lume**- Hector Carré-1994
- **Extasis**- Mariano Barroso-1995
- **Hotel y domicilio**- Ernesto del Río-1995
- **Lucrecia**- Mariano Barroso-1995
- **Bajo la piel**- Francisco Lombardi-1996
- **Robo en el cine capitol**- Fernando Guillén Cuervo-1996
- **Airbag**- Juanma Bajo Ulloa-1997
- **Secretos del corazón**- Montxo Armendariz-1997
- **Vigo, the passion for life**- Jualian Temple-1997
- **Doña Barbara**- Betty Kaplan-1998
- **La hora de los valientes**- Antonio Mercero-1998
- **Los lobos de Washington**- Mariano Barroso-1999
- **El arte de morir**- Álvaro Fernández Armero-2000
- **Tinta roja**- Francisco Lombardi-2000
- **Visionarios**- Manuel Gutiérrez Aragón-2001
- **Nos miran**- Norberto López Amado-2001
- **El viaje de Carol**- Imanol Uribe-2002
- **Kamchatka**- Marcelo Piñeiro-2002
- **Skin Deep**- Sacha Parisot-2003



Naturaren isladak

Lur gozo honetan susturak ondo erroturik, kementsu eta tinkotasunez, behin eta berriro bizi izatea aldarrikatuko dugu. **Egunkaria aurrera.**



12A 03/2/28

kuba II



testua eta argazkiak: xabier
errasti, 'jerras'
(geu-k itzulitako testua)

Oilarren kantuak eta lehen argi izpiek esnatu naute, eta egunsentia logelatik ikusteko aukera izan dut: alboko etxeetako teilak, palmondoak eta aguakateondoen muluak, itsasertzera doazen mendien magalak, gris eta gorri leunetako zerua eta eliza zaharreko dorrea bere higatutako hormekin eta abaildutako erlojuarekin. Han, goialdean, jada erori den elizetxea.

Herria esnatu da, beste behin, eta hariztatutako eta ia hutsik dauden kaletxoetatik barna, xigortu berri den kafe usainak txoko guztiak hartzen ditu.

Jendea euren etxeetatik ateratzen hasten doa. Esnea erostera doa, edota lanera eramango dituen guagua hartzera. Beste batzuk lehen turistak zain daude, soson bat irabazi ahal izateko.

Geu, nagitsu, hondartzarako bidea hartuta pedalei eragiten diegu. 9.30ak baino ez dira, eta eguzkiak kalte egiten die nire lagunei, eta bidean topatzen dugun itsasorako lehen iterean gelditzea erabakitzen dute. Egia esan, bero dezente egiten du. Haietaz agurtzen naiz, ondasunak apur bat banatu ostean: zorionez boligrafoarekin eta ur ontziarekin geratu naiz. Gauean ikusiko dugu elkar.

Parajea oso berdea da oraindik, belarri luzeduneko behiak bazkatzen duten zelaia daude, azukre-kanabarak, zeiba hostotsuren bat, zuloz betetako errepide estu batek haustuta. Oso gorriak diren karramarro batzuek, matxarda tenteekin, gurutzatu egiten dute, metro gutxi batzuetara dagoen itsasorako bidean.

Errekak zeharkatzen dituzten zubiak topatzen ditut. Horietako batean landaretza oparia da eta bere bazterrak eskuzabal zabaltzen dira. Zubiaren azpialdean inprobisatutako dendekin kanpina egiten ari diren familiak aurkitzen ditut, horietako batzuek ohea ere badute. Eguna paseatzen ematen dute, bainatzen, zuhaitzetatik uretara jaurtitzen, rona edaten eta janaria prestatzen duten bitartean. Gazte batzuk kuxkuxeatzera urreratu zaizkit, margolaria ote naizen galdetzen didate eta nongoa naizen, Kuba gustuko dudana, ...

Trinitatera bueltatzean, bero itogarriaren eraginez bidean aurkitzen ditudan ibaia eta itsaso guztietan bainatzen naiz. Gainera, ekaitzak harrapatuko nauela uste dut.

Ostatu hartzen dugun etxea zabala da eta patio eder bat dauka. Sarrerako atea eskailera batzuen bukaeran dago, egur zaharrekoa da. Haren ondoan eta bere besaulkian eserita,



aitona, beti zain. Kalera begira dauden leihoak burdinazko hesiez itxita daude, andaluziar erara. Hormak hori biziko kolorekoak izan ziren garai batean.

Barrualdean, armairuek, apaintze-mahaiek eta erlijio kutsuko zenbait irudik aberastasun garaia islatzen dituzte. Sapai altutik behera doazen gortinek egonaldia ixten dute.

Arratsalde horretan jakin genuen familiak Orlando Suarez granaditar jatorrizko espainol bat zaintzeagatik hartu zuela oinordetzan etxea, eta egun jabeak zirela, eskubide osoarekin. Aitonak kontatu zigun, ezagutu genuen egun berean, patioko mahaitxoan zigarro puruak biltzen zituen bitartean. Euri-jasaren oreka zen.

Historia lehen tantek bustia geratu zen, zeinek indar izugarritz tabako xehetua eta edozein egunkaritako paperean jada eginda eta bilduak zeuden zigarroak blai eginda utzi zituzten.

Gauak arraroak dira. Apenas dago argirik kaleetan. Horrela, batzuetan, orkatila bihurtzen duzu, bestetan oina putzu batean sartzen duzu. Galtzadariak solte daude eta gaiztakeriak egiten dibertitzen dira.

Izkinara jo eta abesten dauden ahotsak entzuten dituzu, maraken oihartzunak, gitarra hariak. Ilunpean dagoen atari hartara hurbildu eta besterik gabe, eta "tip"-agatik, jotzen ari diren musikari zahar koadrila bat topatzen duzu. Bi neskatok, bat oso beltza eta bestea ia zuria, erritmoa gorputzarekin jarraitzen dute, irribarretsu, arreta puntua direla jakinda. Marakak dituen gizona demasekoa da: txikia, oinak tinko eta lurrera itsatsita balego bezala, belaunarte heltzen zaion jertsea daramala.

Instrumentuak kanta bakoitzarekin desafinatzen dira. Berradiskidetzen dituzten bitartean, ahotsak, ron tapoixko bat betetzen du eta konpai-ei eskaintzen die.

Orain jotzen ari den son hori gero eta urrutiago eta ulergaitzago zaigu urruntzen goazen heinean, baina aldi berean, Kubako eszenarik ohikoena girotzen doa. Gure inguruko etxeak begiekin ibili ahala, diskreziorik gabeko beren leihoetatik familiak ikusten ditugu, zuri-beltzez dir-dir egiten duen telebistaren inguruan, aulki zaharretan eserita, begirada adiekin eta komentarioa egiteko prest, elkarri argitzeko korapilo tragikomikoa: TIERRA BRAVAren ordua da.



GAMARRA OSTALARITZA ESKOLA

sukaldaritza
denbora-pasa

ONDDOZ BETETAKO TXERRANKA ENTSALADA EPELA

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

- Txerrankak
- Onddoak
- Berakatza
- Perrexila
- Almendra birrindua
- Sesamo haziak
- Baba txikiak
- Gari zainzuria
- Letxuga bereziak
- Tomate 'konkasea'
- Gatza, oliba olioia eta ardo zuri ozpina

Binagretarako

- Modenako ozpin balsamikoa
- Txerri-salda iluna
- Olio birjina

PRESTAKETA

- Txerrankak ur hotzetan garbitu ondoren egosi, eta atera duten haragi guztia, gorde.
- Onddoak oliotan egosi ondoren, zati txikietan zatitu, eta berakatz pixka batekin salteatu.
- Nahastu onddoak, txerrankak eta perrexil apur bat eta mikrouhin-labean epeldu ondoren, zelifanetan bildu eta zilindro bat osatu. Hozkailuan gorde.
- Behin gogortzen denean, disko loditxoetan zatitua, eta almendra birrindua eta sesamo hazietatik igaro ondoren oliotan frijitu bi aldeetatik.
- Bestetik, baba txikiak berakatzarekin salteatu egosi ondoren. Letxugak garbitu eta zati politetan zatitu. Tomate 'konkasea' prestatu. Zainzuriak egosi. Eta azkenik, binagreta prestatu...



PLATERAREN ANTOLAKETA

- Letxuga bakoitzeko zati pare bat jarri era txukunean plateraren alde batean.
- Goilarakada bi zabaldu beraien alboan.
- Tomate gainean jarri hiru txerranka medalioi.
- Letxugak ohizko osagaiekin gozatu, eta txerrankak, berriz, beste binagretarekin.
- Amaitu zainzuri eta baba txikiekin apainduz.

Hitz Gezidunak

(LUMA)

		Maitasun Ezin amai- tuzko	A	Guraso arra	A	* Deitura Titanioa	D	Bilaka- tzeak Kontso- nantea	B	Zer lekutara?		
			A	M	A	I	T	E	Z	I	N	
		* Deitura Desira	O	R	T	I	Z	Gauero egi- ten dugu Bizkatko herria	L	O		
Euritakoa Atea	A	Zezen zikiratua Arautegi	I	D	I	A	Adar K birritan	A	B	A	R	
	A	T	A	R	I	A	Zikinkeria Aurrizkia	K	R	A	K	
Sustrai, zain Ipar., orain	E	R	R	O		Dardara Nekoso	I	K	A	R	A	
	O	R	A	I	Z birritan H2O	Z	Z	Garraio mota I falta tros- koa izateko	T	R	E	N
Txori mota Gidatzen dute	K	U	K	U	A	Emakume izena Urrea	L	E	I	R	E	
	G	I	D	A	R	I	A	K	(erro) Ekarri 10	K	A	R
Interjek- zioa	A	I	Sexu eme	A	L	U	Mahai joko	X	A	K	E	

***Irudia:** Arriolan jaiotako XIX. mendeko politikari eta idazle arabarra. Bere egitasmo nagusia 'Unión Vasco-Navarra' edo 'Laurac bat' izan zen, Pirinioetako alde honetako euskal familia osoa bildu nahian. Albarazaleztat hartuz auzitara eramanda zenbaitetan, eta deserriratzten ere saiatu ziren. Arabako foru diputatu ere jardun zuen, "euskal libertateen defentsarako legeen inguruan arituz".

Soluzioa:
34. orrialdean

ARABAKO ARGAZKI ELKARTEA



Egilea:

IÑAKI ZULUETA

**“Aurten
Bartzelonara
mugitu naiz
argazkigintza
ikasteko asmoz.
Argazki hau, nire
lehenengo astean
lortu egin nuen,
Bartzelonako
MACBA (Museo de
Arte Contempo-
ráneo de Barcelona)
erakustokian. Zuri
eta beltzean lan
egitea gustatzen zait
eta hona hemen
argazki interesgarri
eta dibertigarri hau.**

Konposaketa da gehien
gustatzen zaidana eta
batez ere argazkiak
isladatzen duen ideia:

**KONTROLATZEN
GAITUZTELA!”**

ADI, ADI! GEUJIRAN IRRATSAIOA



Geu elkarte
eta Geu
aldizkariaren eskutik uhinetan abian
jarritako euskarazko irratsaio
koloretsu, fresko eta bizia. Bertan
euskaltasunean eta gaurkotasunez
KULTURA, LITERATURA, MUSIKA,
ARTEA, IRITZIA, AISIA, KIROLA eta
GIROTXOArekin topa egiteko
aukera izango duzue!: astelehenero,
23.30etatik 24.00etara, zuekin,
GEUJIRAN, Radio Vitoria-n.

Eta proposamenak, iritziak etab.
helarazteko:

geujiran@eitb.com

kangeuroak

Umeak zaintzeko Kangeuroen zerrenda
osatzen jarraitzen dugu. Zerrenda honetan
agertu nahiez gero eman zure izena eta
telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun
oso, goizez, arratsalde, gau, asteburuak):
945222153 / geugaste@grn.es (horrela
norbaitek KanGeuro baten beharra badu
hemen du aukera zurekin zuzenean

kontaktuan jartzeko)

• **Ordutegi guztiak**

Maria. 656745969

Miryam. 656761588

• **Arratsalde** Patxi. 652743205

• **Gau** Nerea. 658733934

• **Asteburuak** Nagore. 945281124

Marta. 606415235

lan poltsa

GEU elkartearen monitore euskaldunen lan-poltsa osatzen ari da proposamen berrietan
lan egin ahal izateko. Bidali curriculum txiki bat postaz edo e-postaz
(geuelkarte@grn.es) Arduraduna: Josune

geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

Apirilaren 13an

GORBEIA (1481) Azerotik

Informazioa: 945140158 (Kike)

Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko 9.00etan

mintzalagun egitasmoa

Euskaraz mintzatzeko, euskaraz jende berria ezagutzeko, euskaraz
ondo pasatzeko...

Astindu lotsa eta deitu elkartera (945222153-Josune).

Zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdin gehiago!

Egun abian dagoen taldea ostegunetan biltzen da,... Deitu eta
emango dizugu informazioa (Josune)

geu azoka

deitu edo idatzi zure iragarkitxoa argitaratzeko! (iragarkiak
alez ale berritu behar dira)

- **Salmentak, alokairuak**

- **Judimendi** auzoan pisua osatzeko pertsona baten bila nabil.
225 euro hilero. Tfnoa.: 945282131 (arratsalde-gau)

- **Alokairua** udarako, oporraldietarako, VERAn (Almeria):
apartamentu bat errentan gune naturista batean (jantzita:
telebista, garbigailua...); terraza eta igerilekua dauzka.
Hondartza naturista. 657739425

KULTUR ERROTA&KORRIKA KULTURALA

Geu elkartearen eskutik, **GILKITXARO** antzerki
taldea: "ELEBATOR"

Apirilaren 29an, asteartea Parral-en, 20.30etan

mahaia

Hilero Geu
aldizkaria-ren mahaia
dugu erdi aroko
hiriguneko azokan, arkupeetan, gure
egitasmoa ezagutarazteko, gure jardueraren berri
emateko. Hemendik aurrera berrikuntzak topatuko
dituzue: eskaintza berriak, sorpresa-txartelak,
opariak...; eskaintza berrietan, esaterako: MANTXUT
bilduma: Mantxut?; Mantxut mantxut?; Freexkue.



Ez galdu aukera eta erdu gurera! Etorri bisitan!
Gogoratu, hile bakoitzaren lehen larunbatean!

Beraz, apirilaren 5era arte!

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fourrier, 23
Tfnoa: 18 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 18 19 91
01004



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**
Pintore kalea. (S. Frantzisko kanteiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

geure gomendioz

literatura liburua van't hoffen ilea

Egilea: Unai Elorriaga
Bilduma: Literatura 228
Orriak: 222
Salneurria: 14,30 euro
Data: 2003ko martxoa



Liburu batek aldatu egin dezake idazle baten bizitza. Edo sari batek, hobeto esanda. Izan ere, inor gutxik ezagutzen zuen Unai Elorriaga 2001eko udaberrian bere lehen eleberria kaleratu zuenean, orain hain ospetsu bihurtu den SPraiko tranbia hain zuzen. Kritika onak jaso zituen, liluratu egin zituen hainbat irakurle, salmentak ere onak izan ziren, euskal merkatuaren neurria kontuan edukita, betiere. 2002ko udazkenean, berri, Espainiako Narratiba Sari nazionala eman ziotela jakin zenez geroztik, biderkatu egin dira salmentak, jo eta jo dabil bere etxeko telefonoa, alde guztietatik eskatzen dizkiote hitzaldiak eta artikuluak, liburu hura ere hainbat hizkuntzatar itzultzeko bidean da. Panorama ederra, idazteko lasaitasuna eta patxada behar dituen sortzaile batentzat! Eskerrak ordurako amaturik zuen bere bigarren nobela, idazle gazteentzako lgartza bekaren laguntzarekin idatzia: CAF enpresak, Beasaingo Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten sariketa honek Elorriagaren proiektua saritu baitzuen 2001ean. Iritsi da eleberri hori plazaratzeko unea, eta zuen aurrean aurkezten da Van't Hoffen ilea, nobela bitxi, desberdin eta sailkaezina.

Matias Malanda, obra honetako

protagonista, Ministerioko funtzionarioa da, bere arloan onena nonbait, eta proiektu bat dela-eta iritsi da Idusera, lan hori zertan datzan inork argi ez badaki ere. Etxez etxe ibiliko da bere grabagailua hartuta, herriko pertsonaia berezien bizitzak jasotzen, ustez, asmo horren atzean beste helburu batzuk gordetzen diren arren.

Tipula-azalen antzera, misterio bat ezkatutzen da beste misterio baten azpian, kontakizunak aurrera egin ahala irakurleak argituko dituenak. Bien bitartean, mikroipuin ugari topatuko ditugu, jende bitxiaren biografia moduan: xake-mota arraro batean jokatzearren ondasun guztiak saldu zituzten anaia bien istorioa, presoen agiriak faltsifikatuta garaia baino lehen kaleratzen zituen kartzelako idazkariarena, artazi formako museo bat eraiki zuen arkitektoarena...

Bere estilo bereziaz idatzi du Elorriagak bigarren eleberria: gauzak hitz erdika esanez, elipsien bidez sujerituz, testuan eztanda txikiak eta txinparta etengabeak bilatuz. Istorio xeble guztion atzean, ordea, gizatasunaren taupada beroa nagusitzen da, begi pikaro batekin aldi berean irri eta keinu egiten diguna.

musika

cd-a

sagarroi

'euria ari duela!'

metak-03



Eraberritua datorkigu taldea eta bere bigarren lana grabatzen aritu dira azken hileotan.

Andoingo Garate Studioak aukeratu dituzte berriz ere lan

hau betetzeko eta oraingoan ere Kaki Arkarazo arduratuko da lan teknikoaz. Reggae-ska eta raggamuffina beraien hardcorearen irakurketa pertsonalarekin nahastua. Bistan da honek taldearen norabide musikalean aldaketa bat dakarrela. Asier Ituarte tronboilaria, Joxe Ripiau ohia, taldean sartzeak nola edo hala ekarriko moldaketa. Martxoan disko berria, beraz, kanean, eta lehendabiziko aurkezpenak jendaurrean: apirilak 4, Bilboko Kafe Antzokian; apirilak 5, Ondarroako Kafe Antzokian.

komikia

sauré

argitaratzailea

kapak eta letaginak (II)
 bandera beltza!
 ayroles & masbou



Hidalgo espainiarra, kortsario berberea, aitoren seme frantsesa eta untxia altxorren bila nabigatzen ari dira uharte Tangerinoetarantz. Baina ekaitzek zigortutako artxipelago mitikora iritsi aurretik, non hondoratutako itsasontziak eta itsas munstroak ibiltzen diren, gure lagun kementsuek beste etsai bat izango dute aurrez aurre... etsai alaia, bai, baina baita krudela eta gupidagabea ere: piratak!

geuren ekimenez:

Gasteizko irakurle Kluba 7. eta 8. saioak

Honako hauek dituzue maiatza hasieran eta bukaeran mintzagai izango diren liburuak:

-Jane Austen, Harrotasuna eta aurrejuzkuak. Ibaizabal, 1996

Maiatzaren 7, asteazkena

- Inazio Mujika, Azukrea belazeetan. Erein, 1987.

Maiatzaren 28, asteazkena

Saioen koordinatzailea: Iban Zaldúa
 Ordua eta tokia: 20.00etan Hikaateneo-
 n (Pintore kalea, 13)

Literatur lehiaketa

Apirileko galdera:

Zelan esaten da euskaraz "esta es la historia de nunca acabar"?

(halakoan erantzunak gure irratsaioan, GEUJIRAN, entzungai)

Bidali erantzuna posta arruntaz edo elektronikoz (geugaste@grn.es)

Martxoko galdera:

Geu elkarteak eta Geu aldizkariak irratsaio bati heldu diote oraingoan. Nola izena du, eta non eta noiz entzun daiteke?

Irabazlea: ELENA ORTIZ DE LANDALUZE UGARTE. Zorionak! [irabazitako liburuak: Xabier Montoiaren 'Denboraren izerdia' (elkar)]

Erantzuna: Irratsaioak GEUJIRAN izena du. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitorian.

denbora-pasaren soluzioa

(31. orr.)

	⬛	A	⬛	A	⬛	D	⬛	B	⬛
	A	M	A	I	T	E	Z	I	N
	⬛	O	R	T	I	Z	⬛	L	O
⬛	A	⬛	I	D	I	A	⬛	A	B
A	T	A	R	I	A	⬛	K	R	A
⬛	E	R	R	O	⬛	I	K	A	R
O	R	A	I	⬛	Z	Z	⬛	T	R
⬛	K	U	K	U	A	⬛	L	E	I
G	I	D	A	R	I	A	K	⬛	K
⬛	A	I	⬛	A	L	U	⬛	X	A

*Ortiz de Zarate

KOMIKI

A

"Zure kotxearen
motorra martxan
jartzen denean,
demokrazia
bultzatzen ari
zara..."

3.6.24,



EGUNKARIAREKIKO ELKARTASUNA!!!

MARTXOAK 13, ELKARTASUN EGUNA, EGUNKARIAK BABES ITZELA JASO ZUEN EGUNA, BIDE GABEKERIAREN AURKAKO EGUNA, ASKATASUNAREN ALDEKO EGUNA, EUSKARA ETA EUSKAL HERRIAREN ALDEKO EGUNA, GEZURREN AURKAKO EGUNA, TORTURAREN AURKAKO EGUNA.

BAINA EGUN GUZTIEK BEHAR DUTE IZAN MARTXOAK 13, HORREGATIK, EGUNKARIAREN ALDEKO EKIMEN IRUDIMENTSUAK KALERA ATERATZEN JARRAITU BEHAR DUGU, DENOK GARELA KO EGUNKARIA, EGUNKARIAK BEHAR GAITUELAKO, EGUNKARIA BEHAR DUGULAKO, EUSKARAK BEHAR GAITUELAKO.

BERAZ, PROPOSAMENIK BADUZUE DEITU GEU ALDIZKARI ETA ELKARTERA: HORIEK JASOKO DITUGU, ONDOREN EGUNKARIAREN LAGUNTZA TALDEAREN BIDEZ AZTERTU ETA BIDERATZEKO.

ASKATASUN KUTXAK: artea, eskulturak, zuzenean

MARTXOAREN 13an Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan, hainbat lagunek antolatuta, 'ASKATASUN KUTXAK' lelopean egin ekimenean Gasteizko artista ezagunek parte hartu zuten, Agurtzane Villate irudigileak, Jon Mujika grafiti-egileak eta Iñigo Sarasola marrazkilariak hain zuzen. Kartoizko kutxekin egindako kolore biziez margotu murruetan artistek Egunkariaren aldeko irudia osatu zuten. Honez gain, kartoizko kutxekin ere, Egunkariaren aldeko eskultura bat egin zen. Guztia musikaz bustia.



EGUNKARIAKO LANGILEEN OHARRA HERRITARREI


Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu herri aldizkari, elkarte eta herritarrei, otsailaren 20tik bertatik ematen ari zareten laguntzagatik eta babesagatik.

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu EGUNKARIAko langileok beste proiektu bat lantzen hasteko konpromisoa hartua dugula, eta oraingoz berau laguntzeko bideak zeintzuk diren, herri-batzordeen

bidez bideratuko direnak:

- Egin harpidetza EGUNERO egunkarian.
- Erosi ohiko taberna, ikastetxe eta abarretan euskal prentsaren aldeko bono-laguntzak.
- Erosi kamisetak, zapiak, metxeroak, pegatinak, pin-ak eta abar.

Eskerrik asko, eta EGUNKARIA aurrera!



gasteiz **izan**

UDAL HAUTESKUNDEETARAKO ZURE SINADURA BEHAR DUGU

Epea: Apirilaren 1etik 16ra

**Bete beharrekoak: - NAN-a eramatea
- Adinez nagusia izatea**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Notaritzak:

Perez Avila (General Alava, 17)
9:00-13:00 eta 16:00-18:30
Ostiral arratsaldean ixrita

Rueda (Manuel Iradier, 18 behe)
9:30-14:00 eta 16:00-19:00

Arana Cañedo (General Alava, 10-6.)
9:00-14:00 eta 16:00-19:00
Larunbata, 5 9:30etatik 13:30ak arte

Torres (General Alava, 16-2.ezker)
9:30-10:30 eta 16:30-18:30
Larunbata, 12 9:30etatik 13:30ak arte

Eta Gasteizko Udalekxarearen Idazkaritza Nagusian (Plaza Berri)
8:30-14:00 Larunbatetan ixrita